

ttipi-ttapa



Jabier TELLETXEA GAGO | Txinan bizi den beratarra

«TXINAKO EGOERAK BAINO GEHIAGO KEZKATZEN NAU NAFARROAKOAK»

2011tik Txinan bizi da Telletxea eta koronabirusa izan du hizpide TТИPI-ТТАParekin. / 8

Hilabete historikoa **ERRAN.EUSEN**

Joan den urtetik %150 hazi da bisita kopurua eta martxoaren 12an koronabirusaren berriak sartzen hasi zenetik %20. / 26

SINADURAK



MAIDER IANTZI GOIENETXE / 3

AITOR AROTZEN ALBIZU / 3

MAITANE MARTORENA AZKARATE / 4

EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI / 4




ZOZKETA / 52



«Nahiz eta guztiek odol hotza dugula eta ohituta gaudela pentsatu, hau bizitzeko ez nengoela prest ikusi dut»

Nafarroako Ospitale publikoan lan egiten du Zuriñe Goikoetxea Saizar aresoarrak. Koronabirusak kutsatutako gaixoak artatzen ibili da eta berak ere positibo eman du / 30



Itzultzailea eta Aditu garatzen ari den Berako Ander Corrali elkarrizketa / 10

KONTRABANDISTEN *udaleku ibiltaria:* Abentura eder bat Baztan-Bidasoko mendietan barna



Kontrabando bideetan oinarrituta, 14-17 urteko gazteentzako astebeteko udaleku ibiltaria antolatatu dute abuztuan Oiartzungo Arritxulok, Arantzako Aterpek eta Beintzako Aterpetxeak. Egitasmoak 4. urtea beteko du eta Euskal Herri osoko gazteek parte hartzen dute. Hona hemen ezaugarri batzuk:



• **Natura eta abentura:** 7 egunetan Oiartzungo Arritxuloko aterpetxetik Beintza-Labaienera iritsiko dira, bidean Arantzako Aterpen bi gau eta Mendaurko urtegian bertze bibak bat egingen dute. Aiako Harria, Artikutza eta Leurtzako paraje ederraz gozatzear gain, Arantzan zuhaitz

parkean eta Beintzan Lezealdeko kobazuloan ibiliko dira.

• **Motxila bizkarrean, kontrabando garaian bezala:** ibilaldiak egunez egiten badira ere, garai batean paketeak eramateko ibilitako bidexkatan barna ibiliko dira, bizkarrean ekipajea dutela. Gau batean, afal ondoko solasal-



dia izanen dute kontrabandoan aritutako Etxalarko Xanti Elizagoienekin.

da faltako. Mendaurko gaua izarpean egingen dute, bibak modura.

• **Lagun artean, 14-17 urte:** taldeak gehieneko 20 gaztek osatzen dituzte, banaka edo talde txikitik izena ematen dutenak, lagun berriak egin eta esperientzia ederra bizitzeko eta partekatzeko gogotsu.



• **Abentura freskagarria:** Arantzako Putzubeltzean, Mendaur eta Leurtzako urtegiatan... beroa non freskatu ez

• **Abuztuan, bi txanda:** lehenengo abuztuaren 2tik 8ra eta bigarrena 16tik 22ra antolatu dituzte. Prezioa: 285 euro.

+ INFO: www.euskarazblaiudalekuak.com / Tel: 948 592 323

«Amatxi, nik kontrabandista izan nahi dut!»

Azkeneko bi urteetan Kontrabandisten Udaleku Ibiltarian parte hartu duten eskualdeko gazte batzuk bildu ditugu Lesakako Zialdo ostatuan eta, kontrabandista ohien legez, merienda goxo baten ondoan beraien bizipenak eta gogoetak partekatu dituzte. Batzuk 2018an, bertzeak 2019an eta bi urteetan ibilbiak ere badira.

Lagun berriak egiteko baliagarria izan al zaizue Udaleku Ibiltaria?

MI: Bai, gehienbat inguruko lagunak; tarteka elkartzen gara.
MG: Anaiarekin etorri nintzen, baina bigarren egunean denekin solastatzen nintzen iada. **Zuen ingurua hobeki ezagutzen al duzue orain?**

GA: Bai, Mendaurko kaskora ailegatu eta handik dena ikusi, nondik heldu ginen... eta noraino iritsi behar, hori satisfazioa!!

Fisikoki gogorra egin zitzazuen?

BE: Beno... bizkarrean 10 kilo eramatea ez da eroso, ni zamarik gabe ibiltzen ohitua nago, baina esperientzia berezia da eta motxila ongi prestatzen ikasten da, gogotik.

Kontrabandoaren mundua eta bizipenak bertze modu batez ikusten dituzue orain?

GA: Hagitz interesgarria izan zen Xantirekin solastatzea (Xanti Elizagoien), hobeki ententitu nituen istorio haiek.



Ezker eskuin: Lesakako Gaizka (GA), Beintza-Labaiengo Beñat (BE), Oiartzungo Magali (MG), Igantziko Mattin (MT) eta Berako Mikel (MI).

Etxera bueltatu eta amatxiri erran nion: «amatxi, nik kontrabandista izan nahi dut!!» Haiek abenturak!!

MT: Bidean, Xantik kontatutako pasadizoak imajinatzen nituen, bide horietan gauez, 25 kilo bizkarrean, zapata kas-karrekin... eta guardien bel-durrez!! Hura bizimodu zaila!! **Zer azpimarratuko zenukete esperientzia horretatik?**

MA-BE: Talde sentipena eta elkarrekin egoteko gooa, zerbait partekatzen duzu eta.

MI: Gure taldean bazen Bilboko bat, euskara ikastolan ikasia. Bortziritakoak gure artean solasean eta gaixoak sufritzen zuen gu entenditzeko, baina gogokoa zuen gurekin egotea!!

MT: Bakoitzak bere puntuarekin ailegatu da, ez dakizu zer aurkituko duzun eta bidean talde polit bat eta esperientzia eder bat egin duzu!!





NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Arraildurak eta loreak

Atsegin eginen zaizuelakoan, Indiako ipuin tradizional bat kontatuko dizuet. Adineko pertsona bat du protagonista, bi urtez egunero errekatik ugazabaren etxerako bidea egin zuena, makil bat sorbaldan eta aldeetan ontzi handi bana zintzilik. Ontzietako batek arrakalak zituen eta ur dezente galtzen zuen; bertzeak ur guzia garraiatzen zuen. Egun batean, hala mintzatu zitzaion ontzi pitzatua adinduari:

– Lotsaturik nago nire arraildu-rengatik uraren erdia bakarrik entregatzen duzulako.

– Etxera bueltan, bide bazterreko lore ederrei begiratzea nahi dut –erantzun zion adinekoak. Ontziak kasu egin eta lore zoragarriak ikusi zituen. Halere, atsekabeturik jarraitzen zuen.

– Ohartu zara loreak bidearen zure aldean soilik hazi direla? – galdetu zion zaharrak. Zure arrailei alde ona atera nahi izan diet. Haziak landatu eta bi urtez ureztatu ahal izan ditut. Zaren bezalakoa ez bazina, ez zen posible izanen edertasun hau. Arrailduretan pentsatzera gonbidatzen zaituztet: zein dira zure loreak?

«ARRAILDURETAN PENTSATUZ, ZEIN DIRA ZURE LOREAK?»



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Ipuin txinatarra, gerturatu eta 14!

Hala erraten zitzairen lehen sinestezinak iruditzen zitzaizkigun istorioei. Duela bi hilabete eskas ipuin txinatarra zela pentsatzen genuena, amesgaizto bilakatu zen Italiara hurbildu zenean eta orain, egia gordina bihurtu da mundu osoan. Hain gurea den esaera zaharrari buruztanka eman dio egoerak: urrutiko intxaurrak lau, gerturatu eta hamalau!

NABARMENTZEKOAK



MIKEL NIEVE ITURRALDE
TXIRRINDULARIA



TEODORA DORREMOTZ SARRATEA
EHUN URTE

Txirrindularitzan espezializatua den *Cycling News* aldizkariko irakurleek Mikel Nieve leitzarra aukeratu dute munduko laguntzaile onena. Azken aukeraketan, botoen %55,8 jaso zituen.

1920ko apirilaren leian Zigako Larraldean jaio eta gaur egun Elizondon bizi den Teodora Dorremotz Sarrateak ehun urte bete ditu berriki. Osasunez ongi omen dago gainera. Aunitz urtez!

ATZERA BEGIRA



2010-04-15 · TTIPI-TTAPA · 516 zk.

Bitartekaririk gabeko baserritarrak

Bitartekaririk gabe, baserriko produktuak aurrez aurre saltzen zituzten baserritarrak gero eta gehiago zirela ikusita, horretan ari ziren Beñat Lekuona Sarako baratzezaina –argazkian–, Aitor Azkarate Anizko abeltzaina eta Xabier Sestorain Leitzako abeltzaina elkarrizketatuz erreportajea osatu zuten TTIPI-TTAPA duela hamar urte. Saratarrak «jendea izutua» dagoela adierazi zuten «alde guzietan gaitzak agertzen ari direlako eta ongi jan nahi dutelako». Azkarate ere argi mintzatu zen: «kopuruaren aldeko apustua egitea baino hobea da kalitatearen alde egitea». Sestorainek «eroslea produktu merkearen bila» dabilela azaldu zuten, «hori industrialki egiten den ustiatzietan lortzen dela» gaineratuz.

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,

Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,

Pablo Irastorza, Mattin Larralde,

Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,

Marga Erdozain, Maitane

Maritorea, Aranxa Iturralde,

Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,

Jaione Zabalza, Nerea Mortalena,

Virginia Oteiza, Pierre Bastres,

Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier

Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione

Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	39€
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

mecna

BAZTANGO EUSKARA ZERBITZUA

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Malerreka Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

Beldurraren boterea

TTIPI-TTAPATIK apirilaren 16ko alean agertzeko kolaborazioa eskatu zidaten martxo akabaila aldera, apirilaren 6ko entregatzeko erran zidaten. Egoera berezia denez, ez dakit ale hau paperean edo pantaila baten bidez leitzen ari ote zaren. Zuzenbidean paperean leitu beharko zenuke, alarma egoera deituriko sasoi honetan, komunikabideak oinarritzko zerbitzu gisa izendatu baitira, baina dagoeneko ikasi dugu zuzenbidea eta bide zuzena ez direla gauza bera.

Paperean edo pantailan izan, TTIPI-TTAPAREN funtzionamendua ez ezik, mundu osoarena irauli du birus ikusezin honek. Mundua irauli eta beldurra erein, beldurra baita hondarreko hiru aste hauetan birusarekin batera munduan barna hedatu dena.

Beldurrak sorrarazi duen egoera hau ezin ententidurik nago oraino, hortaz, sentimendu honek gizartearen eragin duena aztertu beharrean, beldur hitza hiztegiaren nola definitzen duten begira aritu naiz.

Wikipediaren arabera arriskutsutako jotzen den berehalako estimulu edo egoera batean sentitzen den emozio bizia da beldurra. Muturreko egoera batean, ordea, arriskuaren pertzepzioa larria delarik, beldur handia sortzen da eta subjektuaren paralizazioa gertatzen ahal da. Horixe da

«BELDURRA JENDEA KONTROLATZEKO ARMA EZIN HOBEDA»

irudipenezko arriskuaren aitzinean sortzen den urduritasunezko egoera. Gure akademiaren definizioak ere bat egiten du bizi dugun egoerarekin, wikipedian ez bezala, kasu honetan *irudipenezko arriskua* ageri da. Nik ere irudipena dut gugandik kanpoko faktoreek eragin dutela gure barnean.

Definizioak definizio, gizakiak berezkoa eta biologikoa du beldurra, beldurra izateak arriskuetatik eta mehatxuetatik babesten baikaitu. Emozio guztien artean primitiboena omen da sentimendu hau adituen arabera. Baina beldurra egin egiten da, fabrikatu egiten da, bere mekanismoak ditu hondarreko zokoraino ailegatzeko, eta edozein pandemia baino agudoago hedatzen da. Emaitza boteretsuak lortzen dituelako erabili ohi da beldurra helburu jakinetarako.

Jendea kontrolatzeko arma ezin hobea da.

Eduardo Galianok aspaldixkoan eskribitu zuen *Beldur Globala* poesian honela zioen: beldurraren garaian bizi omen gara, beldurrak manatzen du, boterea beldurrez elikatzen da. Zer litzateke boterea beldurrik gabe? Zer litzateke boterea bizirauteko sortzen duen beldurrik sortuko ez balu?

hitzez hitz beldurraren definizioa wikipedian, eta erranen nuke, bizi dugun egoera ongi definitzen duela. Euskaltzaindian ere begiratu dut beldur hitzak zer adiera duen, honela dio: egiazko nahiz



EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Biosegurtasuna eta Covid 19a

Biosegurtasuna material arriskutsuak erabiltzen diren kasuetan (biologikoak, kimikoak edota fisikoak) aplikatzen diren arau, neurri eta protokoloek osatzen dute. Adibidez, osasun publikorako arriskua suposa dezaketen hondakinen gestioan aplikatzen da hau. Biosegurtasuna lau honen baitako segurtasun handieneko maila da. Gizakiari gaixotasun serioak eragin eta pertsona batetik bertzerara erraz transmititzen diren birusak, germenak, etab. sortzeko erabili ohi direnak. Eta bai, horrelako laborategi bat Wuhan-en daukagu.

Planeta honetako gizaki boteretsuenek, burgesek, urtean milaka milioi euro gastatzen dituzte horrelako tokietan, gaixotasunak artifizialki sortuz, osasungintzarako dirurik ez dagoen bitartean, hau da, milaka milioika euro gastatzen dituzte gu hiltzeko formak asmatzen, gu osasuntsu eta zoriontsu izan gaitezen gastatu beharrean.

Egiant sinetsi behar dugu saguzar batetik atera dela Covid-19a, non eta justu horrelako laborategi bat zegoen tokian? Edozein gisan kasu! Pandemia bat sortu da, mundu guztia berrogeialdian... Buf! Etsai hagitz gogorra tokatu zaigu oraingoan! Komunikabideetan dioten moduan, #GeratuZaitzeEtxean. Badakigu gripeak ze eragin izan ohi

«SINETSI BEHAR DUGU SAGUZAR BATETIK ATERA DELA COVID-19A?»

duen? Ba munduan, urtean 300.000 eta 650.000 pertsona artean akabatzen ditu. Espainiar Estatuan, 2018an, 15.000 pertsona. Benetan da hain arriskutsua Covid-19a? Edo zertara dator histeria hau guztia?

Azter ditzagun hartutako neurriak ere: hainbat herritako jendearekin fabrikari elkartzeari ez da arriskutsua, baina bai baratzerara joatea, umeak karrikara jaistea, zure betiko lagunekin elkartzeari, paseo bat ematea... Gainera, polizi eta militarrek erabateko boterea dute, gure mugikorrek jarraitzea legalizatu dute... Pandemia geratzea edo burgesiaren langileokiko kontrola areagotzea da helburua? Gainera, goi burgesiak, gobernuarekin batera, erabaki politiko zein ekonomikoak hartzen jarraitzen du, langileon askatasun politikoak debekatuak dauden bitartean. Eta alderdi politiko instituzional guztiak joko honi jarraipena ematen.

Gauza bakarra dago argi: Honek ondorio larriak ekarriko ditu: Komertzio zein enpresa ttiki andanaren itxierak, klase ertaineko zein langile kapa baxueneko (hau da, proletalgotako) langileen bizi mailaren jaitsiera erregularizazio zein kaleratzeen ondorioz... Hau da, kapitalismoaren edo burgesiaren eraso berri bat langileokiko, krisi berri bat, koronabirusaren eta arrazoi humanitarioen izenean mozturaturik.

Inoiz baino argiago, sozialismoa ala basakeria.

11 GALDERA LABUR

GARAZI ARRETXEA UNANUA GARTZAINDARRA

«Baztandarren Biltzarra elkarreak lagun aunitz eman dizkit»

Aurkeztu zure burua.

Mendiaz eta naturaz gozatzea gustuko duen euskaltzalea.

Zein dira zure zaletasunak?

Mendira joatea, irakurtzea, kantatzea, leku berriak ezagutzeta... Tarteka etxeko goxotasunaz disfrutatzea ere gustatzen zait, aukeratua denean noski. **Herrigintzan ere bazabiltza. Noiz sartu zinen Baztandarren Biltzarra elkartean?**

2013an sartu nintzen eta egia erran behar badut, aspaldi burutan neukan zerbait zen, baina ez nuen pausoa eman. 50. urteurrena ospatu zen egunean halako giroa eta emozioa sentitu eta eman nuen.

Noiz hasten zarete lanean?

Bilerak otsail aldera hasten dira eta hilabetean behin egiten

ditugu. Besta hurbildu ahala maiztasuna handitzen da.

Zenbat lagun zaudete taldean eta nola banatzen dituzue ardurak?

16 kide gaude elkartean eta komisioka lan egiten dugu. Ni desfileko komisiokan nago.

Berriki Baztandarren Biltzarra «kinka larrian» dagoela aipatu duzue. Azaldu...

Covid-19ak eragin duen pandemia dela eta ez dakigu ospatzeko baimenik izanen dugun. Hau aski ez balitz, elkarreak duen egoerak ez du prestaketetan laguntzen... Dagoeneko erabaki batzuk hartu behar izan ditugu. Erraterako, tonbola komisiokan kendu eta bertan dauden kideak bertze komisioketara pasatu eta horiek indartu ditugu.



Ondorio ekonomikoak izanen ditu...

Bai, tonbolari esker diru-sarrerari ziur bat lortzen du, baina gauzak horrela, hartu beharreko erabaki bat zela uste dut. Pena handia eman digu...

Herritarrek nola lagun dezakete?

Lan egiteko gogoaz piztea izanen litzateke lehenbiziko pausoa. Bigarrena, berriz, sentituzetik egitera pasatzea, elkarrea prestatzen ari den boluntario sarean izena eman eta bertan agertzen diren lanen bat egitea.

Nola animatuko zenituzke boluntarioak?

Lanean sortzen den giroa arrasona da. Ni elkartean sartu nintzenean jende aunitz ezagutu nuen... hori aberastasuna da! **Uztailean ez bada... beranduago ospatzeko aukera aztertu duzue?** Ez, aldatzeak zailtasunak ekarriko litzateke... Aukeren artean betiko egunean egitea edo ez egitea daude momentuan.

Ametz bat?

Baztanen *eskuara* barra-barra!

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Ohe-estalkien bilduma berria eta ugaria



IRAKURLEAK MINTZO

Ruanda atakan

JUAN JOSE PELLEJERO GOÑI

Harrera ikusgarria da. Afrikan, ohi denez, ongi etorriko dantzaldi bat eskaintzen digute. Emakumeak kantari hasten dira, haiek bakarrik dakiten dantza estilo dotorez lagunduta; haurrak ere segidan lotzen zaizkio datza erakargarri eta bizkorrari, odolean baitaramate dantzatzeko grina; eta erritmo bizia larruzko danbor eder batez emakume batek markatzen du.

Medicus Mundik kofinantziatu eta antolatutako Osasun Auzo-etxe batean gaude, Bukunga alderdian. Bortz urtez azpiko haurretan nutrizio txarra arazo gogorra da eta hori zuzentzea da etxe horien helburu nagusietako bat. Bere honetan baratzere ere du bat lantzen eta kudeatzen erakusten diete amei, baita hainbat baratzere ere auzoetako kofinantziatuen ere euren familiak egoki horni ditzaten. Medicus Mundiko tokiko eragileak garbitasuna eta higienerari buruzko formakuntza ere ematen die. Horrela emakumea etxeko bizi-baldintzen hobekuntzaren ardatza bihurtzen da.

Hala ere, hor ez da akitzen Osasun Auzo-etxe hauen eginkizuna. Ekimen haren arrimuan, Medicus Mundiko agenteak amei proposatzen die baratzere saltzeko kooperatiba bat sortzea, bai eta aurrezki kluba antolatzea ere jarduera ekonomikorik gabe bat gauzatzeko.

Ruandako osasun azpiegitura hagitz eskasa da. Erraterako, 70eko hamarkadan Medicus Mundiren laguntzaz sortutako Nembako ospitaleak 250.000 jenderi zerbitzua ematen die 200 ohatze eta baliabide murriztekin –11 mediku bakarrik–.

Gure taldea martxoaren 7an sartu zen herrialdean Medicus Mundiren eskutik eta koroa-birus kasurik ez zen oraindik; 19an, hegazkinez doi-doi atera ginelarik, ofizialki 11 kasu erregistratuak zeuden. Eta gaur, martxoaren 24a, 39 kasu konfirmatu dira eta konfinamendua agindu da militar eta polizia-kontrol zorrotzen formulapean, Ruandan ohi denez. Neurri hauek landa eremuetako irauteko

ekonomian kalte larria ekar lezakete, emakumeak merkatuetan saltzen dutenetik eta gizonak zerbitzu edo eraikuntzako lanetik bizi baitira. Egunez egunez ekonomia da.

Medicus Mundi Ruandan egiten ari den lana ezinbertzekoa da hango osasun sistamarako eta hango biztanleak jabetuta daude. Horregatik Osasun Auzo-etxetik lekutu behar dugularik, esker on gisa, emakume guzietan eskaintzen dizkigute zuriei *Mzungu-ei*, beraien dantza eta kanta bizia, alaia, erritmiko eta koloretsua. Bejondeizuela, Ruandako emakumeak! Bejondeizula Medicus Mundi!

Osasun krisi bat baino askoz gehiago

MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE | LEITZA

Mundu osora hedatu den birusak aurreikusia zegoen krisi orokor bat azkartu eta gordindu du, Ongizate Estatua kolokan jarri. Potentzia ekonomiko nagusiak (Txina, AEB...) norgehiagokan dabilta, Europagainbeheran, Euskal Herria tartean. Burgesiaren ofentsibaren aurrean, sozialdemokraziak langile klasearen interesak defendatzeko duen ezintasuna agerian geratu da.

Erabakiak osasunean oinarritu ordez kalkulu politiko-ekonomikoen arabera hartzen dituzte, krisi egoeretan gehiago: banku eta enpresak aurrean, gero ogi apurrekin haserre soziala baretu. Etxean itxi gaituzte ahalik eta lantoki gehien martxan mantenduz osasun neurririk gabe ere, kontrol soziala muturreraino eramaten ari dira... Bitartean kaleratzeak, autonomoak, nekazari/abeltzain txikiak larri, beltzean lan egiten dutenak... Etxean ere gizonezkoak jotzen duen emakumea, gela batean bizi den familia, hilabete amaierara ezin iritsita antsietateak jota dagoena.

2008an hitz ematen zuten denen artean buelta emango geniola. Kontrara, oraindik krisi haren ondorioak pairatzen ditu-

gunean larriago bat dator eta langileoi ordainarazi nahi digute.

Kapitalismoan ez du tokirik etikak, etekin ekonomiko handitzeko ekoizten da eta ez behar sozialak asetzeko. Sistemaren biziraupena bermatzeko dago Estatua, laguntza sozial, osasun sistema, epaitegi, polizia, komunikabide... bidez. Langile klaseari sistema zalantzan jarri ez dezan bezainbeste ematen dio. Estatuaren kudeaketa justu bat egin daitekeela defendatzea kapitalismo justu bat existitu daitekeela esatea da.

Zer egin? Beharrezkoa da langileon baldintzak okertu ez daitezen eta okerren dauden langileon egoera hobetzeko borrokatzea, betiere langile independentzia oinarri izanik. Langileon antolakuntza independenterik gabe, hobekuntza oro sistemarekiko/Estatuarekiko dependentzian lortuko da, epe ertainera langileria-aren gaineko dominazioan sakonduz. Autodefentsa antolatzeari eman behar zaio garrantzia, garaipen txiki bakoitzarekin *antolatuta lortu daitekeela* frogatuz eta gradualki garaipenak mailaz igoz. Hori da zaintza eta osasuna lehenetsi daitezen dugun aukera bakarra.

Aipatu nahi nuke Gazte Koordinadora Sozialistak abiatu duen *Burgesiaren Ofentsiba gelditu!* dinamika, azpimarratu ideien ildotik egoeraren gaineko analisi politiko egokia egiten baitu.

- <https://gedar.eus/aktualitate/mugimendusozialista/ezkutuko-salbuespen-egoeraren-aurkako-salaketa-kanpaina-politiko-abiatur-gsk>
- <https://gedar.eus/koiuntural/manexGM/koronabirusak-kendu-dituen-karetak>

Mikel Sagastibeltzaren artikulua
ERRAN.EUS-en osorik.

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

*Gure herria hain da txikia, ez duela plazarik.

Eguneroko hizkeran hagitz hedatua bada ere, ondoriozko perpausetan ez da zuzena –ela menderagailua erabiltzea. Euskaltzaindiak dioen bezala, «euskal tradizioan ez du inoiz balio hori izan». Esaldi horren eta gisakoen erranahia adierazteko euskaraz bertze modu batzuk ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

Gure herria hain da txikia, (*non*) ez baitu plazarik ere.

Gure herria hain da txikia, (*non*) ez duen plazarik ere.

Gure herria hain da txikia, (*eze(n)*) ez baitu plazarik ere.

Gure herria hain da txikia, (*eze(n)*) ez duen plazarik ere.

Zein
da
zuzena?



Zubietako herria ala Zubieta herria?

Biak egokiak dira.
Halaxe dio Euskaltzaindiak.

'Zubietako herria' da
molde nagusia baina
'Zubieta herria' ere
zuzena da; baina ez
'*Zubietaren herria'.



Kalko ustelak

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*NAFAR GOBERNUA > NAFARROAKO GOBERNUA

Tradizioan herritar-izenak osatzeko erabili izan da gehienbat *-ar* atzikia (eta *-tar* (*-dar*), *-ztar* aldaerak): igantziar, elgorriagar, aresoar, oiztar, oieregir... Herriei ez ezik herrialdeei eta kulturei ere erantsi zaie, konparazio batera, Erromatar Inperioa edo txinatar kultura. Joera adierazteko ere baliatu izan da: ezkertiar, eskuindar...

Baina zenbaitetan atzizki hori oker erabiltzen da:

*Amaiurtar karrikak > Amaiurko karrikak

*Lesakar auzoak > Lesakako auzoak

*Aniztar gasna > Anizko gasna

*Valentziar laranjak > Valentziako laranjak

Euskaltzaindiak erran bezala, «erdaren bide arrunt bati itsu-itsuan jarraikiz eratuak» dira. Lekuari erreferentzia egiten diotenez, euskarazko adierazpide normalak 'Amaiurko karrikak' eta 'Lesakako auzoak' dira.

Bertzetik, *-ar* atzizkia leku-izenari eranstekoa denez, ez dira egokiak leku-izenaren zati bati, erdal herritar-izenari edo erdal herritar-izenaren parte bati euskal atzizkia erantsita lortzen diren hibridoak. Horren adibide dira hauek:

*Europear > europar

*Katalandar > katalan

*Pakistaniar > pakistandar

*Kanadiar > kanadar

*Oharra: *Berriaren Estilo* Liburuan ongi aski azaldua dutenez, alkate eta bertze karguak aipatzean *nongo* erabili behar da, ez *nondar*. Gauza bera gertatzen da erakundeekin.

*Alkate beratarra > Berako alkatea

*Frantziar presidentea > Frantziako presidentea

*Nafar Gobernua > Nafarroako Gobernua

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Jabier Telletxea beratarra eskuinean eta Lele bere emaztea berrogeialdia bukatu ondotik. UTZITAKOA

Txinan sorterritik urruti baina koronabirusetik at

Tesia egitera joan zen Jabier Telletxea Txinara eta geroztik hantxe du habia. Bi urtez bizi izan zen koronabirusa sortu den Wuhan hirian baina gaur ez du hura bizitoki. Handik 300 kilometrotara pasatu du berrogeialdia eta handik kontatu digu Covid-19aren kontra Txinan egin duten bidea

G. PIKABEA TXINA-BERA

«Nahiz eta arriskutsua izan, lanera joatera derrigortzen gaituen sistema batean bizi baldin bagara, sistema hori ongi dagoen edo ez pentsatu beharko genuke». Halaxe, argi eta kritiko, mintzatu da Jabier Telletxea Gago beratarra. Txinatik egin ditu solas horiek, koronabirusa tarteko, azken hilabete eta asteotan hain ezagun egin den Wuhan hiriburutik 300 bat kilometrotara dagoen Danyang herritik. Hubei probintzian daude bai Danyang baita COVID-19a lehenbizikoz sortu zen Wuhan ere, eta ezaguna du egoera.

Sistemarekiko kritika horiek, ordea, ez dira Txinako sistemari egindakoak. Euskal Herrikoaz eta Europakoaz ari da, Txinan lehentasuna herritarren osasunak izan duela baitio.

Urtarrilaren erdialdetik martxoaren erdialdera berrogeialdian egon dira Hubei probintzian, Telletxeak dioen bezala, «etxetik atera gabe eta etxetik kanpo lanik egin gabe». Hain zuzen, herritarrek «Gobernuak ezarritako neurriak zorrotz bete» izanaren erakusle dira

datuak bere ustez: «Hubeiko eremu honetan, miloi erdi biztanle gara, Nafarroa osoan bezala. Hemen 61 kasu bakarrik izan ditugu eta hildako bakar bat ere ez». Honela gaineratu du: «urtarrilaren 24an hasi ginen berrogeialdian eta estatuarenak diren fabrika

Espainiako hedabideekin haserre

Inongo arazorik gabe kontatu digu Txinako egoeraren berri Telletxeak, beso zabalik hartu gaitu Skypez, patxadaz eta argi erantzunez galderei. Hori bai, «bertakoak zaretelako» eskaini digu elkarrizketa. Koronabirusa tarteko, hainbat izan ziren ate joka joan zitzaizkion hedabideak, eta batean baino gehiagotan agertu zen bere aurpegia. Baina dena ez da erakutsi duten bezala izan. Espainiako hedabide handiekin «esperientzia txarra» izan du, «gezur aunitz erratez gain, nire bideoak ebatsi eta bertze hedabideei saldu dizkietelako». Ahoan bilorik gabe dio «nazkatuta» bukatu duela.

handienetan martxoaren 11n bueltatu ziren eta gainerakoak 16an». Tarte horretan etxetik aritzeko izan dutenak bakarrik aritu dira lanean. «Hilabete eta erdiz dena geldirik egon da», azpimarratu du. Kontatu digunez, «gehienez auzoan 200 metro egiten ahal genituen oinez, zaborra botatzera». Gainerakoan, «ez erosketak egitera, ez lanera, ez autoa edo motorra hartuta... ezin izan dugu inora joan». Karrikak mozteko «barrerak» paratu zituzten eta hemen ez bezala, «janaria etxera ekartzen zigiten» etakanpoan, «boluntarioak eta gobernuko langileak karrikak zaintzen aritu ziren. Ez dugu polizia armaturik ikusi».

«Nafarroan ez dituzue hola-ko neurriak martxan paratu», dio: «gu hasieratik guztiz geldirik egon gara, baina hor lanean segitu duzue. Jendea lanera bidaltzen baduzu, zenbaitetan maskararik gabe eta distantziak errespetatu gabe, nola kontrolatuko da birusa?».

Opor garaia

Abenduan agertu ziren lehenbiziko koronabirus kasuak Wuhanen. «Orduan apenas solas egiten zen horretaz», aipatu digu. Udaberriko oporrek bat eginez, beraren eta bere emaztearen bizitokia den Shaoxing hiria utzi, eta ohi bezala, oporrek emaztearen familiarekin pasatzeko «urtarrilaren 10ean etorri ginen herrira». Ordurako «SARS birusa bezalako zerbait bazela erraten zutela» gogoan du, «baina ez ginen larritu». Urtarrilaren 20an jakinarazi zuten «personak artean kutsatzen ahal zela eta 23an hiriburuan berrogeialdian sartu ziren. Guri egun bat beranduago tokatu zitzaigun». Hiriburua urruti badute ere «opor garaia izaki, Wuhanen ikasten duten ikasle aunitz herrira bueltatuak» zirela dio, «eta eurekin birusa».

Auzolana eta elkarlana

Behin berrogeialdian sartuta, erosketak egitera joateko de-

bekua «hirugarren astean» ezarri omen zuten. «Hasieran oinarrizkoa erostera ateratzeko baimena genuen, baina gero, erosketak etxera bidaliko zizkigutela jakinarazi ziguten. Etxez etxeko banaketa kontrol eta segurtasun neurriak segituz, supermerkatuetako langileek eta boluntarioek egiten zuten. Janari-dendek ezin izan zituzten betiko banaketa enpresak kontratatu».

Auzolanaren garrantzia ere azpimarratu du, «auzoko batzordeen bitartez» funtzionatu dutelako: «auzo bakoitzak gobernuko bulego gisako bat du eta hor antolatzen zen lana, boluntarioekin eta gobernuko langileekin. Auzo bakoitzak bere Wechat [Whatsapp-en gisakoa] taldea du eta horrat bidaltzen genuen erosketa zerrenda. Handik egun batera edo bitara ekartzen ziguten eskatutakoa etxera. Auzolanean lan handia egin da».

Elkarlana ere goraiatu nahi izan du Telletxeak: «bertze probintziek lagundu digute eta gobernua baseritarrei erositako barazkiak oparitu zizkigun. Etxez etxe, bizpahiru egunez, aldi bakoitzean bortz-hamar kilo ekarri zizkiguten etxeko atera».

Hortik haratago, bere hitzetan, «metodo sinpleekin» gaitu dute gaitzaren hedapena: «Txinak teknologia aitzineratua duela erran izan dute aunitzek baina Hubei ez dago sobera garatua eta karriketan barrerak paratzea eta etxean gelditzea bezalako metodo sinpleak izan dira neurrien artean eraginkorrenak».

Berrogeialdia

Beratarrari ez zaio gogorra egin konfinamendu garaia: «gezurra erranen nuke gaizki pasatu dudala erranen banu». Unibertsitateko klaseak online emanaz eta Youtubeko bere kanala hornitzen duten Txinari buruzko bideoak eginez «hagitz lanpetua» ibili da: «ordenagailu aitzinean denbora aunitz pasatzen dut eta ez dit

sobera eragin. Ongi egon gara, jatekoa izan dugu, Copyrighttik gabe pelikulak eta telesailak paratu dizkigute, Internet arazorik gabe ibili da eta etxean ongi moldatzen gara».

Etxetik kanpo, Txinako herritarrek «gobernuak ezarritako neurriei ongi erantzun» dietelakoan dago. Gehiago ere erran digu: «bertze bizi maila batera ohituta daude. Batez ere 40 urtetik goitikoak bertze egoera batzuk ikusitakoak dira eta jatekoa eta oinarrizkoa izan dutenez, ez zaie gogorra egin».

Txinatarren beldurra

Gobernuaren neurrien gaitetik «bertze diferentzia bat» sumatu du Telletxeak: beldurra. «Hemen jendea birusaren beldurrez egon da. 2002an Txinan agertu zen SARS birusaren ondorioz, ia mila lagun hil ziren eta hori ez dute atzenda. Orduko birus hura baino kutsakorragoa zela erran zutenen, jendea izutu egin zen»

Hala, azaldu digunez, «gobernuak hirugarren edo laugarren egunean etxetik ez ateratzeko aholkatu zuenerako herritar aunitzez ziren etxetik ateraten. Hain justu, Nafarroan ikusi dugunaren kontrakoa».

Txinako Gobernuari egindako kritikak ere gaitzetsi ditu: «gobernuaren kontrakomezuak etengabeak izan dira, oker aritu dela, herritarrek beldurrarazi dituela, gobernu bera eroriko zela, kaosa handia izan dela, ez duela egia erran hildako kopuruaren inguruan...». Bere hitzetan, ordea, «hori gezurra da. Hemen jendea beldurtuta eta kooperatzeko gogoz egon da. Hori da errealitatea». Gaineratu duenez, «birusa Txinan zegoenean, estatu espainiarreko hedabideek Txinak jarritako neurriekin dena gaizki aterako zela erraten zuten. Birusa Europara ailegatu zenean, berriz, gripe bat baino ez zela zabaldu zuten. Eta orain zer?».

Itzulera ona

Martxo erdialdean itzuli ziren normaltasunera: «kutsatutako guztiak sendatzea eta bi astez kutsatu edo susmagarri gehiagorik ez agertzea zen neurri batzuk kentzeko gobernuak ezarri zuen baldintza. Wuhan hiriburuan oraindik sendatu gabeko kutsatuak badirenez, neurriek indarrean segitzen dute». Bera dagoen herrian, aldiz, «barrera guztiak kendu dituzte, baina probintziatik ateratzeko debekua ere eta gehiena martxan da», nahiz eta, berak «irakasle lana etxetik» egiten segitzen duen eta «jatetxeak, zinemak eta jende aunitz biltzen diren tokiak itxita dauden». Bere irudiko, «itzulera nahiko ona izan da». Berrogeialdia bukatu zen aste horretan berean «gobernu lokalak enpresa guztiak %89an ari zirela erran zuten. Langa-beziak pixka bat egin zuten goiti, baina oraindik %6koa da. Hubei probintzian izan dugu okerreana eta hemendik kanpo ongi daude».

Sorterrira begira

Txinan koronabirusa goiti eta beheiti ibili den garaian, beratarrarentzat ez da kezka-iturria izan: «ez diot beldurrik izan, etxetik ateratzen ez ginenenez, ez genuen kutsatzeko aukerarik». Sorterrian eta inguruan ikusten ari den egoerari erreparatu, ordea, bertzelakoa dio: «Nafarroako datuak ikusita, Txinan kezkatu nauenak baino gehiago kezkatzen nau horko egoerak». Datuek ez ezik, errealitateak ere hori erakutsi dio: «Txinan ezagun bakar bat ere ez da kutsatu, ezta ezagunen urrutiko inor ere. Kutsatu diren ezagunak Berakoak dira».

Ez du larritasun mezurik igorri nahi izan, bere hitzetan, «lasaitasuna ez delako inoiz galdu behar» baina hortik haratago, «osasunaren gaitetik, arriskua izanda lanera joatera derrigortzea» sistemaren inguruan hausnartzeko nahikoa arrazoi iruditzen zaio.



Jabier Telletxea Youtubeko bere kanalerako bideoak editatzen.

Tesia egitetik irakasle izatera

Soziologia ikasketak egin eta 2011n hartu zuen Txinako bidea Jabier Telletxeak, Garapen Ekonomikoa eta Txinako Balio Tradizionalen Artek Harremana tesia egiteko. Hain justu, bi urte pasatu zituen Wuhanen, «batez ere hango unibertsitateko ikasleekin ikerketak eginez». Han ezagutu zuen gaur egun bere emaztea dena «eta geroztik urte bat egin du Beran eta gainerakoa hemen». Azken hiru urteotan «unibertsitate batean espainiera klaseak» ematen ditu, baina bertzelako lanetan ere ibili da, horien artean, «enprekin eta gobernuarekin kooperazio lan batzuk» egindakoa dela kontatu digu. Unibertsitateko lana emaztearekin batera Txinari buruzko hainbat eduki bilduz osatzen duen Youtubeko kanalarekin eta blogarekin uztartzen du.

«Euskararen garapen teknologikoa ezin dugu erraldoien esku utzi»

ANDER CORRAL NAVES ELHUYAR FUNDAZIOAN LANEAN ARI DEN BERATARRA

Ikasketaz eta ofizios informatikaria da Berako gaztea. Ikasketak bukatu zituenetik Elhuyarren egiten du lan, eta Itzultzailea eta Aditu tresnak garatu dituen lantaldean aritzen da

G. PIKABEA | BERA

Klik bakarrean audioak eta bideoak automatikoki transkribatzeko eta azpidazteko Aditu tresna elebiduna eta klik bakarrean euskaratik eta euskarara bertze borts hizkuntzetatik itzulpenak automatikoki egiten dituen Itzultzailea. Horiek dira Elhuyar Fundazioak egin dituen azken bi apustuak, bata zein bertzea puntako tresnak. Urrats handia, inondik inora ere, erraldoi teknologikoen munduan hain toki ttikia duen euskararentzat. Bi tresna horiek eskualdeko jendea ere badute gibeletik, tartean, Ander Corral Naves (Bera, 1995). Berak azaldu dizkigu bi tresna horien barrenak.

Azaroan Itzultzailea paratu zenuten erabilgarri. Nolako erantzuna izaten ari da?

Geroztik erabiltzaile kopurua gora egiten ari da. Bagenekien jendeak euskaraz *Google Translate* baino modu fidagarriagoan dabilen itzultzaile baten beharra zeukala, baina ez genuen espero hain epe motzean horren harrera onik edukiko zuenik. Erraterako, lehen bi hilabeteetan, 15 milioi hitz itzuli ziren. Itzultzaileak mugari bat suposatu du guretzat kalitatearen aldetik, jauzi kualitatiboa izugarria izan baita euskaratik eta euskarara egingidako itzulpenetan.

Nolakoa da tresna?

Itzultzailea webgunetik zein mugikorretik (Android eta iPhonearako aplikaziotik) era-

bil daiteke. Mugikorretako aplikazioaren bitartez Itzultzailea eskura edukitzeaz aparte, azkar eta eroso erabili daiteke edozein testu itzultzeko. Zerbitzu aurreratuak eskaintzen ditu: dokumentuen itzulpenak (Word-ekoak, adibidez), neurri-neurriko soluzioak... Gainera, gure datuekin enpresek egiten duten erabilerari buruzko zalantzak sortzen diren honetan, konfidentziasuna bermatzen dugu.

Oraingoz sei hizkuntzekin aritzeko prestatu duzue. Gehiago lan-tzeko asmorik baduzue?

Momentuz, Itzultzaileak sei hizkuntza dakizki: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa,

katalana eta galegoa. Ateragenuenean ez zeukan ingelese eta ingelesetik itzultzeko aukerarik, baina ingelesa edukitzea garrantzitsua zela uste genuen. Handik hilabetera gehitu genion aukera, ikerketaren emaitzak onak izan zirenean. Beraz, ez gaude hizkuntza gehiago gehitzeko aukerari itxita eta baditugu bertze hizkuntza batzuekin proiektu batzuk. Eskaintzen ditugun hizkuntzen itzulpenak hobetzen ere segitzen dugu. Bizirik dagoen tresna da Itzultzailea. **Urte batzuk baditu Elhuyarrek itzulpengintza automatikoan lanean. Bide horretan, nolako pausoa izan da Itzultzailea?**

Mugarri bat izan da. Elhuyarrek urte aunitz daramatza itzulpen automatikoaren arloan, baina hasieran lortzen ziren emaitzak ez ziren bertze hizkuntzekin bezain onak. Batzuetan itzulpen horiek ulertzeko zailtasunak zeuden. Azken urteetan, adimen artifiziala modan jarri da eta geroztik, hizkuntza guztietan sekulako hobekuntzak izan dira. Honen eskutik ateragenuen 2018an Modela Itzultzaile automatikoa. Salto kualitatibo handia ekarri zuen euskarazko itzulpenetan, eta handik urtebetera Itzultzailea plataforma ateragenuen, oraindik finagoa itzulpenetan.

Zerk bereizten du Itzultzailea bertzeetatik?

Euskara onartzen duten itzultzaileetatik dokumentuen itzulpena eta aukera aurreratuak, hala nola, bezeroaren zerbitzarietan txertatzea, itzulpen programetan txertatzea, pluginak... Bertzetik, konfidentziasuna bermatzen da eta gure ikerketa lerroko emaitzen hobekuntzak berehala eguneratu eta erabiltzeko aukera.

Urte hasieran Aditu hizketa eza-gutzailea aurkeztu zenuten. Zein ezaugarri ditu?

Audio eta bideoak automatikoki transkribatzeko eta azpi-

«Elhuyarren hagitz erraza da etxean bezala sentitzea»

Informatika ikasteko erabakia «azken momentuan» hartu zuen Corralek. Baina ez da damutu, «graduko lehenbiziko urtean» konturatu baitzen «erabaki ona» izan zela eta «erabat gustukoa» zuela. Donostiako EHU Informatika Ingeniaritzako Gradua egin ondotik, Konputazio Ingeniaritza eta Sistema Adimenduak masterra egin zituen.

2018an ikasketak bukatu «eta gutxira» egin zuen lan mundura salto. «Elhuyarren Hizkuntza eta Teknologia Unitatean lanean hasi nintzen. Izenak dioen bezala hizkuntza



Ander Corral. UTZITAKO ARGAZKIA

eta teknologiaren arloan ibiltzen naiz, batez ere adimen artifizialaren munduan». Kontatu digunez, «gehienbat ikerketa proiektuetan» ari da: «itzulpen automatikoa, hizketa ezagutza, ahotsaren

sintesia... Horien emaitza dira Itzultzailea eta Aditu».

Kontent dago Elhuyarren eta «hagitz balorazio positiboa» egin du orain artekoaz. «Lehenbiziko lan esperientzia izan da eta unibertsitatean ikasitakoa errealtatera eramateko lehenbiziko aukera». Proiektu «interesgarrietan» ari dela dio, «gehienak adimen artifizialarekin lotuta, eta hori zen nire helburuetako bat». Pertsonalki, berriz, «garatzeko aukera» eman omen dio: «lan eta talde giro ederra dago eta hagitz erraza da etxean bezala sentitzea».

titulatzeko lehen euskal plataforma da. Adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarritzen da. Momentuz, elebiduna da; gaztelaniazko nahiz euskarazko transkripzioak eta azpitoluak sortzen ditu. *Aditu.eus* webgunean erabilgarri dago eta doako proba bat egin daiteke. Itzultzailearekin bezala, datuen pribatasuna bermatzen dugu, eta malgua da bezeroaren beharretara egokitzeko.

Aitzinetik grabatutako fitxategiak eta zuzenekoekin balio du...

Aitzinetik grabatutako fitxategiak ordenagailutik zein onlineko esteketatik (EITB, RTVE, Youtube, Facebook, Instagram...) igo daitezke plataformara. Horrez gain, aldibereko transkripzioak egiten ditu. Mikrofonotik solas egitean zuzenean testu idatzia eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Zorteko gara kazetariak, elkarrizketak transkribatzen lanik ez...

Transkripzio prozesuko denborak murrizteko laguntza handia da, izan ere, eskuzko zuzentze prozesu bat bertzerik ez du behar prozesua amaitzerakoan. Horretarako azpitoluuen ediziorako interfaze bat eskaintzen du. Bertan segmentuak banaka zuzen daitezke eta aldaketak gorde. Behin zuzenketak aplikatuta, bideo zein audiorako azpitoluak edo errandakoaren transkripzio testu fitxategia jaitsi daiteke.

Edozein baldintzatan egiten ditu transkripzioak?

Hainbat faktoreren arabera da da asmatze tasa: audio grabazioaren kalitatea; oihartzuna, zarata edo musika dagoen gibeletik, hizketa-mota, erregistroa, hizkuntza estandarrean (euskara batua, adibidez) edo aldaera batean den, bolumena, abiadura... Hala ere, baldintza normaletan hagitz kalitate altua lortzen da.

Euskararentzat toki berezia egiten ari zarete teknologien arloan...

Normalean, erraldoi teknologikoen estrategia eta merkatu-interesetatik kanpo daude euskara bezalako hizkuntzak,



Ander Corral beratarak adimen artifizialaren munduan egiten du lan. ELHUYAR FUNDAZIOA

eta garrantzitsua da Aditu bezalako baliabideak garatzea euskarak presentzia digital ona izateko. Ezin dugu erraldoi horiek egiten dutenaren edo ez dutenaren menpe utzi euskararen garapen teknologikoa. **Zer dago adimen artifizialaren eta sare neuronalen giblean?** Funtzio matematikoak bertzerik ez daude. Sistemak guk pasatako datuetatik erregelak eta dependentziak ikasten ditu eta haiek in sarrerako datuak

«KALITATEAREN ALDETIK MUGARRIA IZAN DA ITZULTZAILEA»

bihurtu egiten dituzte dagokien atazaren arabera. Adibidez, itzultzailearen kasuan, sistemari milioika itzultitako esaldi bikote pasatzen zaizkio entrenamenduan. Horrela, euskarazko esaldi bat emandakoan, berak gaztelaniara itzultzen du. Magia dirudien arren, ikaragarria da sare neuronalek problemakomplexuen aitzinean ikasteko duten ahalmena. Azken urteetan, sekulako ekarpenak egin dituzte. Egunero-

«ADITUREKIN HAGITZ KALITATE ALTUA LORTZEN DA»

ko tresna aunitzek adimen artifizialean eta zehazki sare neuronaletan dute oinarria.

Aitzinera begira zein helburu dituzue?

Bai Itzultzailean baita Aditun ere, oraindik ikerketan gabilitza. Gure helburua bi tresnak eguneratuta mantentzea eta geroz eta kalitate eta zerbitzu hobea eskaintzea da. Horretarako ezinbertzekoa da aurrerapenak gure tresnetan aplikatzea. Gainera, bi tresna hauek aukera ederra eman digute bien arteko elkarrekintzan ikertzeko eta zergatik ez etorkizun hurbilean audio baten transkripzioa itzultzeko aukera eskaini? Laguntza ederra izan daiteke eduki elebiduna sortu behar duten horientzat.

Hogei laguneko laguntza sarea martxan da herrian

70 urtez goitiko herritarrak deitzen ari da Udala eta bertze hainbat boluntario jostun lanetan ari dira

TTIPI-TTAPA

Hainbat boluntario sare osatu dituzte herrian beharrenda daudenei laguntzeko, osasungintzan lanean ari direnak materialez hornitzeko, desinfekzio lanak egiteko...

Behar bereziak dituzten eta laguntza behar duten bizilagunak eta familiak laguntzeko boluntario sarea osatu dute. Udalak egindako deialdiari erantzun ezin hobea eman zieten herritarrek eta hogei lagun inguruk osatzen du jada taldea. Laguntza eskaerak jaso dira eta adibidez erosketak eta sendagaiak etxetara eramateko taldea martxan da.

70 urtez goitiko jendea deitzen ari da udala, laguntzarik behar duten galdetuz eta honetako laguntza eskaera kopurua handitzea ekarri du. Adierazi dutenez, adineko jendeak zinez eskertzen ditu dei hauek.

Nafarroako Erizainen Elkar-goarekin ere elkarlanean ari da hainbat boluntario jostun. Momentu honetan mantal-laguntza josten ari dira osasun langileentzako. ALCO enpresak bere josteko makina indus-

trialak erabiltzeko baimena eman du eta horretan ari da zortzi emakumez osatutako taldea. Materiala Nafarroako Erizainen Elkargoak hornitzen du. Mantalak egin ondoren Iruñeko udaltzaingoa dagoen ozono tunel batean esterilizatzen dira, eta Erizainen Elkargoak banatzen ditu behar gehien dauden tokietan.

Herrian desinfekzio lanak egiten hasiak dira. Karriketako espaloiak, zahar etxe, osasun etxe eta dendak sarre-erak eta inguruak, zabor kontenedoreen inguruak eta abar. Honetan ere herritarrak, suhiltzaileak eta udal langileak ari dira.

Esker onak herritarrei

Krisi honek elkartasunean sakondu eta elkar laguntzeko ekimenak sustatzea ekarri du, herritik sortutako ekimenak gehienak. Udalak bere baliabide guztiak jarriak ditu eta boluntario guztiak eskertu nahi ditu. Azkenik, Udalak herritarrei osasun agintarien gomendioei kasu egiteko eskatu nahi die.



Jubilatu berria den Esther Pascalek ere josten ditu maskarak. UTZITAKOIA

Betiko martxari eusten dio Bidazik

Bidazi Bidasoaldeko kontsumo elkartearen azokak ohiko ordutegiari eusten dio eta martxoan, «ohiko salmenta ez ezik, zertxobait gehiago saldu» dela aipatu digu Berako dendan aritzen den Arantxa Isastik. Bazkideek «erosketa zentzudunak» egiten dituztela ere azpimarratu du.

Koronabirusaren eraginez alerta-egoera hasi zenean, zalantzak izan zituzten Beratik kanpoko bazkideek erosketak egitera hurbiltzerik izanzen zuten edo ez eta agiri bat ere prestatu zuten, baina «oraingoz inor ez digu erran erabili behar izan duenik». Bera eta inguruko bazkideak berdintsu etortzen dira eta beharbada, «Arantzatik edo Bortzirietako bertze herrietatik guttiago etortzen dira, baina gehixeago hartzen dute, beraien herriko bertze bazkideentzako erosketak ere egiten dituztelako». Hori dela-eta, «salmentan ez dela jautsierarik sumatu» dio Isastik, «aldearantziz, martxoan gehixeago saldu dugu». Halere, berak aipatu digunez, «egia da Iparraldetik eta Gipuzkoa aldetik ez direla bazkideak etortzen, alde horretatik bai sumatu dugu jautsiera». Hornitzaileei dagokienez, «ongi ari dira lanean, bai ingurukoak eta bazkide direnak, baita kanpotik datozenak ere. Salbuespenak ere badira eta laranja ezin izan ditugu jaso», aipatu digu Arantxa Isastik.

Osasun-krisiaren aitzineko ordutegiari eusten diote Bidaziko azokan: astelehen, asteazken, ortzirale eta larunbatean goizez, 10:00etatik 13:30era eta asteazken eta ortziraletan baita arratsalden ere, 16:00etatik 19:30era.

**LABE ZAR**
Astelehenetik ortziralera:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

**xuga**
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

**Manterola**
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu aitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

**AUZOA GO!**
Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAN
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**JAIONE-GOKOTEGIA**
Etxean egindako produktuak
948 630 786 · Altzate, 21 · BERA

Sanferminetarako proposamenak bildu nahi dituzte

Bestak gibelatzeko aukera ere hor dagoela onartu arren, prestaketak egiten hasiko da besta batzordea

AITOR AROTZENA

San Ferminetako batzordea martxan jarri nahi du Udalak herritarren partaidetzarekin, bestak denen artean antolatzeko asmoz. Aurrez aurreko bilerarik ezin denez egin, helbide elektronikoa sortu dute, bestabatzordea@gmail.com, ekarpenik izanez gero bertara bidaltzeko. Proposamenak apirilaren 17a baino lehen bidali beharko dira eta hori izanen da hasiera honetan parte hartzeko modua.

Udalaren oharrak dioenez, «badakigu gauza aunitz airean daudela, eta momentu honetan segurtasuna dela inportanteena, bertze guzia (bestak barne) bigarren mailan kokatzen delarik». Hala, gertaeren arabera jokatuko dutela, eta bestak gibelatzeko aukera ere hor dagoela onartzen du Udalak: «egoerak azken horretara behartzen bagaitu, bertze data bat adostuko genuke gerorako».

«Egoera arraroa eta gogorra bizitzen ari gara—dio oharrak—, guk aitzinetik inoiz igarora, eta hartara egokitzea da denon

ardura nagusia. Horretan ari gara Udalean ere, nahiz eta ez den erraza, egoera hagitz adakorra delako, gaur hartutako erabaki batek agian bihar ez baitu balioko. Baina aitzinera begiratu beharra dugu, eta hilabete gutxira Sanferminak izanen dira, Aldez aurretik eskerrik asko zure laguntzagatik, denen artean antolatu ditzagun bestak. Animo, eta zaindu zuen burua zaintzeko denon ingurua».

Garbiketa lanak

Udal langileak eta suhiltzaile boluntarioak karririk desinfectatzen ari dira egunero. Zabor guneean, Andra Mari zaharren egoitzan, osasun zentroan, komertzioetan... aritzen dira eta «txandaka antolatzen direnez, toki gehiagotara ailegatzeko dira», dio alkateak. Bertze aldetik, koronabirusaren bilakaera epidemiologikoaren ondorioz, Udaleko lantokiko jarduera presentziala bertan behera utzi zuten joan den astetik aitzinera, funtsezko zerbitzu publikoak izan ezik.




Suhiltzaile boluntarioak eta udal langileak ari dira garbiketa lanetan. UTZITAKOIA

«Erosketak egiteko laguntza behar dutenak aukera aprobetxatzera animatuko nituzke»

IBON TXOPERENA ELOSEGI

LAGUNTZA SAREKO KIDEA

Adinekoei erosketak etxera eramateko laguntza sareak eraiki dituzte eskualdeko hainbat herritan. Lesakan 31 lagun ari dira boluntario lan horiek egiten. Horien artean da Ibon Txoperena: «kuadrillako Whatsapp taldera laguntza sareko kide izateko deialdia ailegatu zitzaigun eta izena eman nuen». Erraza eta erabilgarria da eskaintzen duten aukera: «beharra duenak dendara deitu eta behar dituen produktuak eskatzen ditu. Dendariak, erosketa prest duenean, udal langileei abisua pasatzen die eta hortik guri deitzen digute». Herritar bat behintzat lagundu du: «etxean deia jaso, nora joan beharra nuen erran zidaten eta kasu honetan herritik kanpo zegoenez autoz joan nintzen. Dendariak hartu beharrekoa zer zen erran zidan eta etxera eraman nion. Tinbrea jo eta non utzi esan zidan». Bitartean, «solas pixka bat egin genuen». Egoera honetan laguntza behar dutenei «aukera badutela eta hori aprobetxatzeko» deia egin die Txoperenak.



Ibon Txoperena.

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

DenakBat
Hemen erabili
kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./ Fax: 948 638 232

Aprilak 23
liburuaren egunean
10eko **DESKONTUA**
liburuetan

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

ETXALAR

III. Herri Haitada maiatzaren 16an egitea ezinezkoa da

Ettxalarren egitekoa zen egun honen antolaketa nola bideratu aztertzen ari dira antolatzaileak

IRUNE ELIZAGOIEN

Azken momentura arte erabakia hartzeko zain egon dira herritarrek, baina koronabirusaren egoerak hobera egiten ez duela ikusita, erabaki hori hartu behar izan dute ettxalartarrek. Pena haundia izan da, orain arte antolaketa lan de-

zente eginak zeudelako. Baita ere, urtean behineko elkarretaratze eta egun pasa polita zelako mugako 6 herriek ohiturak berreskuratuz hartua zutena. Egoerak nola eboluzionatzen duen ikusita hartuko dira erabakiak bertze herriekin batera.

Plazako dendak eskaintza zabaldu du eta goizez bakarrik irekitzen ditu atak

TTIPI-TTAPA

Koronabirusa dela eta, Ekita-tiba, plazako dendak jende aitzineko ordutegia mugatu du. Egoera honek irauten duen bitartean, goizez egonen da zabalik 07:00etatik 13:00etara eta igandetan 07:00etatik 12:00etara. Bertzetik, erosketak etxera eramateko zerbitzua ere eskaintzen dute; 948 63 50 26 dendako telefono zenbakira deituta eskaera eginez. Baratzean landatzeko landareak ere ekartzen dituzte, baita ferreteriako produktuak ere. Apeztegiak Interneten daukan



Dendan sartzeko ilara errespetatuz.

katalogoan dagoen edozein material ekartzeko aukera dago. Jendea ahalik eta guttien etxetik mugitzea lortu nahi da honekin.



UTZITAKOIA

La Basque ondoko etxetxea erre da

La Basque jatetxearen ondoan dagoen etxetxea, garai batean Lagun Toki elkartearen izan zena erre zen hilaren 4an. Aspalditik, eraikin horren ezkerreko zatia garaje eta biltegi modura erabiltzen zuten La Basquek, eta Lagun Toki elkartearen izan zena, noizbehinka, elkarte modura erabiltzen zen orain ere.



UTZUTAKO ARGAZKIA

'Herri txiki infernu handi' saioan

Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadik aurkeztuta ETB1en eskaintzen duten *Etxe txiki infernu handi* saioan agertu zen Axun Elizalde etxalartarra apirilaren 5ean. Etxean haurrekin kirola egiteko proposamena luzatu zuten patin, bizikleta eta patinetarekin. Saio osoa ikusgai dago *EITB nahieran*.



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA



USOA
Nekazari kooperatiba

ORAIN GASOLINA ERE

T. 948 635 214 **ETXALAR**

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

«Gazte mugimenduak martxan segitzeko bidea ireki dugu»

ANE TELLETXEA IGOA LESAKAKO GAZTEA

Etxean, baina ez geldirik. Halaxe dago Bortzirietako gazte mugimendua. Egoerak dituen mugaz jabeturik, ahal den neurrian, «aitzineria segitzeko» bideak urratzen ari da

N. BAZTERRIKA LESAKA

Berriki, gazte batzuek Bortzirietako Gazte Sarea osatu dute. Sarearen sortzaile da, bertzeak bertze, Ane Telletxea Igoa (Lesaka, 2001).

Idea irudikatzen gaiztuzera

Ez gelditzea zen asmoa, ez gelditzeko bitartekoak sortzea gako. Horrelaxe hasi ziren lanean eta hortik sortu zen aukera: «talde eder bat Gazte Eguna antolatze biltzen hasiak ginen eta konfinamenduagatik bertan behera utzi behar izan dugu. Sortutako indarra baliatuz eta Bortzirietako bertze herrietako gazte batzuk mugitzeko gogotsu zeudela aprobetxatuz hasi ginen lanean».

Hari bat handik eta bertze bat hemendik, sortu berri dute Bortzirietako Gazte Sarea: «lau lagun bildu ginen hasieran, jokoak, challengeak eta bertzelako ekintzak antolatze



Ane Telletxea lesakarra, Gazte Sarearen sortzaileetako bat. UTZITAKOA

asmoz». Laurek ireki dute bidea, eta pixkanaka bidelagunak gehitu zaizkie: «Bortzirietako gazteak dira parte-hartzaileak eta horiek ere gure taldekide dira, horiek gabe

«BORTZIRIETAKO GAZTEAK GABE SARE HAU EZ LITZATEKE POSIBLE IZANEN»

sare hau ez litzatekeelako posible izanen, beraz, animatu nahi duzuen guztiek».

Irudimena martxan paratu eta entretenitu

Aktibo egoteko eta jendea aktibatze «irudimena martxan» jarriko dute eta «astero-astero egutegi bat» sortuko dute: «egunero eginen diren erronkak bilduko ditugu jendea ideiak pentsatzen hasteko». Honakoak dira proposatuko dituzten jarduerak: «etxetik ikusten dituzten bistekin argazkiak ateratzea, errezetak, jolasak...».

Herritarrei erronkak luzaizteko, «momentuz» Instagram kontu bat sortu dute: «inguruan, gazteen artean gehien erabiltzen den sare soziala dela uste dugunez, kontu bat sortu dugu, *bortzirietako_gaztesarea* izenarekin». Ekarpenean ere onartuko dituzte: «proposamenak ere ongi etorriak izanen dira eta kontu horretara mezuren bat bidali eta listo!».

Momentuz «hasiberriak» diren arren, «sentsazio hagitz ona» dute: «jendeak ongi erantzun du eta horrela segituz gero, iraun bitartean mantentzeko asmoa dugu». Aukera bikaina da hasteko: «etxean egon beharrak garelako eta denbora badugula aprobetxatuz, parte hartzerako animatu nahi ditugu. Elkar ezagutu, harremanak sortu eta tarte on pasatzeko aukera izanen duzue!».

caser residencial
www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala • Nutrizioa
- Podologia • Odontologia eta dentista
- Logopedia • Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegia

Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02
www.mendikoibardin.com

Karta ere badugu!

«Egoera berezi honetan elkarri lagundu behar diogu»

LEIRE MITXELENA GAMIO ARANTZAKO ZINEGOTZIA

Bakarrik bizi diren adinekoei eta arrisku egoeran egon daitezkeen herritarrei laguntzeko boluntario sarea sortu du Udalak. Kontent daude kuadrilla polita agertu delako laguntzeko prest

G. PIKABEA

«Arantzan bakarrik bizi den adineko pertsona dezente» dagoela ikusita eta koronabirusa tarteko sortu den «egoera berezi honetan eguneroko beharretarako laguntza beharko luketela» pentsatuz paratu dute boluntario sarea martxan. Horren inguruan aritu da Leire Mitxelena Gamio (Arantza, 1989) zinegotzia.

Arantzan ere udala izan da boluntario sarea lantzen hasi dena. Eta hasitako bidea ez da hutsean gelditu. Laguntzeko prest daudenen aldetik erantzun ona izan duela dio gaiaz arduratzen ari den zinegotziak: «Momentu honetan 11 laguneko boluntario taldea da».

Oraingoz ez dute eskaerarik hartu eta horregatik erabaki dute etxeetako atea jotzea. «Konfinamendua hasi eta aste batera inork deitzen ez zuela ikusita, beharra dutela uste genuen bakoitzari deitzea era-



Leire Mitxelena Gamio zinegotzia. UTZITAKOIA

baki genuen, zer moduz dauden eta egunerokotasunean moldatzen ote diren galdetzeko...». Aitortu digunez, «18 etxetara» deitu dute zerbitzua- ren berri emateko». Kontent

dago herritarren aldetik jaso duten erantzunarekin: «hagitz harrera ona izan dute denek. Aunitz eskertu dute». Oraingoz, «denak moldatzen direla» erantzun diete: «Familiaren, bizi-

lagunen edo zaintzaileen laguntzaz egiten dituzte erosketak, eta bertze batzuk bakarrik egon arren, ongi moldatzen direla diote. Hala ere, eskertu eta behar dutenerako zerbitzua kontuan hartuko dutela aipatu dute».

Adinekoak eta gehiago

Bakarrik bizi diren adinekoak dira laguntza behar izaten ahal dutenen «ohiko ezaugarriak». Baina hortik haratago, «kasuan kasuko egoera ikusi eta salbuespenak» badirela azpimarratu du Mitxelenak: «gaztea izanagatik osasun egoera kasuarrean dagoenaren kasua ere izaten ahal da».

Hortaz, norbaitek laguntza beharko balu herriko etxera deitzeko deia egin du: «948 63 40 05 telefonora deitu eta zer motatako laguntza behar duten erran behar dute, mandatuak etxera eramatea nahi duten, botikatik zerbait behar duten, medikuarengana joan nahi duten...». Herriko etxean jasotzen dituzte deiak eta «handik guri abisatuko ligukete. Behin abisua pasatuta, gu jarriko ginatke beharrean dagoen pertsonarekin harremanetan».

Argi du elkartasuna dela bidea: «Egoera berezi honetan elkarri lagun behar diogu» eta horregatik eskatu die beharra dutenei «edo zertarako lasai deitzeko». «Animo» mezuekin batera, «borondate ona agertu dutenei» luzatu nahi izan die mezua: «eskerrak aunitz».



T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net



aterpe
albergea jatetxea ostatua



JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK



DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL



Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abian da

2018ko kanpaina, Areso (%17) eta eta Leitza (%15,24) izan ziren euskarazko errenta aitortpen gehien egin ziren herriak izan

TTIPI-TTAPA

Aurrez aurreko hitzorduak bertan behera geratu baldin badira ere alarma egoeraren eta osasun larrialdiaren ondorioz, errenta euskaraz egiteko kanpainarekin aurrera eginen dute UEMAK, udalek eta hainbat erakunde publikok, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezzen bultzatu nahian. Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik.

Honela, Nafarroan, 2018ko kanpaina euskaraz egin zuten herritarren kopurua %17,02koa izan zen Areson eta eta %15,24koa Leitza. Bi herri horiek bakarrik gainditu dute %10eko langa. Eskualdeari dagokionez, Arantzan %8,28ak, Etxalarren %7,79ak, Igantzi %7,16ak, Goizuetan %4,82ak,



Kanpainaren kartela.

2018KO KANPAINA

AITORTPENAK EUSKARAZ	
ARESO	%17,02
LEITZA	%15,24
ETXARRI ARANATZ	%9,38
ARANTZA	%8,28
ETXALAR	%7,79
IGANTZI	%7,16
LARRAUN	%5,00
GOIZUETA	%4,82
ARBIZU	%3,74
BERA	%3,39
BAZTAN	%3,27
BASABURUA	%3,16
ARAITZ	52,84

Beran %3,39ak eta Baztanen %3,27ak egin dute euskaraz.

Herritarren babesa

Administrazioa euskalduntzeko duen eraginagatik, euskararen normalizaziorako bidean udalerrri euskaldunak egiten ari diren bertze urrats bat da errenta aitortpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea. Urratsa sendoa izan dadin, ordea, herritarren babesa eta parte-hartzea ere beharrezkoa da, eta hau horretan eragin nahi du aurten ere UEMAK, udalekin eta bertze hainbat erakunde publikorekin elkarlanean abiarazitako kanpainak, euskaraz dagokion lekua izan dezan administrazio publikoan ere.

Azken urteotan bezala, errenta aitortpena egiteko hainbat modu daude, aurten alarma egoerak baldintzatuta aurrez aurreko hitzorduak bertan behera geratu edo udazkenean atzeratu diren arren. Lurralde bakoitzeko foru ogasunaren arabera webguneak, telefonoak eta gainerakoak aldatzen badiera ere, moduak antzekoak dira kasu guztietan, eta horietan euskararen aldeko hautua egitea da kanpaina honekin UEMAK lortu nahi duena. Batetik, datuetan islatu dadin udalerrri euskaldunetako herritarrek euskaraz bizi direla. Bestetik, administrazioa euskalduntzeko bidean eragiten jarraitzeko.

Martxoan langabeziak %6,4 egin du goiti eskualdean

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek ezagutzera eman ditu langabeziari buruzko martxoko datuak. Doneztebeko enplegu agentziak 47 langabetu berri erregistratu ditu eta (%6,4ko igoera). Kontuan hartu behar da datu hauetan ez daudela kontatuta ERTE espedienteekin lanik gabe gelditu diren langileak.

787 langabe zeuden erregistratuak Doneztebeko agentzian martxo bukaeran. Nafarroa osoko datuei erreparatu gero, igoera oraindik handiagoa da; martxoko aldakuntza %9,98koa da (3.390 langabetu gehiago) eta, osotara, 37.365 langabetu daude orain Nafarroan.

Nafar Lansarek azaldu duenez, igoera hilaren bigarren astetik aitzinera gertatu da, alarma egoera ezarri eta jarduera eten ondotik. Egoera honetan, 3.390 langabetu gehiagorekin Nafarroa osoan, 2020ko martxoa da langabeziak hazkunderik handiena izan duen hirugarren hilabetea krisi ekonomikoa hasi zenetik: 2013ko urtarrilean 3.653 langabe gehiago erregistratu ziren eta 2009ko urtarrilean 3.419 langabe gehiago.

Funtsezkoa izanzen da, lehenik eta behin, osasun-krisia arintzea eta, bigarrenik, ekoizpen-jarduerari pixkanaka ekitea, enpleguan duen eragina ahalik eta denbora laburrenean murrizten saiatzeko. Jardueren arabera, hazkunderik handienak enpresentzako zerbitzuetan (+% 22,3), ostalaritzan eta ostatu-zerbitzuetan (+% 15,2) eta eraikuntza-zerbitzuetan (% 14,1) gertatu dira; aldiz, osasun-jardueretan, zahar etxeetako laguntzan, industria kimikoan eta farmazia-produktuetan, langabeziak % 10,3 eta % 4,2 egin du beheiti, hurrenez hurren.

Errenta Aitorpenaren Kanpaina maiatzaren 6an hasiko da

Errenta eta Ondarearen hurrengo kanpaina, 2019. urteari dagokiona, maiatzaren 6an hasiko da. Data horretatik, zergadunek www.hacienda.navarra.es webgunean kontsultatu ahal izanen dituzte Nafarroako Foru Ogasunak egindako proposamenak eta hasiera emango zaio Internet bidez aitortpenak aurkezteko epeari.

Egun horretan abian jarriko da kanpainiako arreta eskaintzeko telefonoa eta bertzelako izapideak egiteko aukera

izango da webgunearen bitartez; hala nola, PINa eskuratu, datu fiskalak edota aurkeztutako aitortpenak kontsultatu.

Bertzalde, zergadunei eginen zaizkien itzulketei maiatzaren 11n emanen zaie hasiera.

COVID-19ak eragindako ezohiko egoera

Aurreko urteekin alderatuz, eta COVID-19 izurriteak eragindako ezohiko egoeraren ondorioz, Ogasunak ez ditu proposamenak postaz bidali-

liko eta ahalegin guztiak egingo ditu tramitazioa eta arreta osoa bide elektronikoko zein telefono bidez eskaintzeko.

Egoerak izango duen bilakaera kontuan hartuz, Ogasuneko bulegoetako edo beste erakunde laguntzaile batzuetako langileek egindako PFEZren autolikidazioak aurkezteko epea noiz hasiko den jakiteke dago, baita kanpaina zein egunetan bukatuko den ere. Bi datak herritarrei puntualki jakinaraziko zaizkie.

Koronabirusetik ihesi etxera buelta

Abentura bertan behera utzi beharrak eragindako tristuraz haraindi, etxean gelditzeak duen garrantziaz jabetu dira Elena Zabala, Jone Uriarte eta Jon Aldabe

N. BAZTERRIKA

Abentura bizitzen, ikasketak akitzen edo lanean; etxetik urruti zeuden Elena Zabala Ezkurra, Jone Uriarte Jaimerena eta Jon Aldabe Erdozain koronabirusa ailegatu zitzaizkion. Egoerak hala behartuta, uste baino lehenago berregin behar izan zituzten mailetak hirurek.

Italian lehendabizi

Florentziara (Italia) ailegatu ondoko «Eusko Jaurlaritzak bueltatzeko agindu» zion Uriarteri. Astebete eskaseko egonaldia

egin zuen: «otsailaren 22an ailegatu ginen eta 28an bueltan ginen». Tarte horretan italiarrek «bizimodu normala» zeramate la argitu du. Dena den, «kutsatu kopuruak goiti egin zuenean maskarak erabiltzen hasi ziren». Euskal Herrira ustekabean ailegatu zen birusa: «herrian nintzela alarma egoera jarri zuten». Pixkanaka, «inguruan kezka orokorra eta kontzientzia» areagotu zirela sumatu zuen erratzuarrak.

Australian zegoela jaso zuen Elena Zabalak herriko egoeraren

berri: «deiak jaso genituen eta berrietan mugak itxiko zituztela irakurri genuen». Momentu horretan «ezinhobe» zegoen arren, erabakia hartu beharrean ikusi zuen bere burua: «ordu batetik bertzera egoera aldatzen ari zen. Zeelanda Berrira joateko nintzen eta bidaiari bertan behera gelditu zitzaigun. Jatetxe batean egiten nuen lan, eta birusaren eraginez turismoak beheiti egiten bazuen...». Berehala hartu zituzten neurriak han ere: «martxoaren 20an mugak itxi zituzten».

Alemanian gero

Aldabek Berlindik (Alemania) bueltatzea erabaki zuenean «egoera han ez zen hain larria». Dena den, «senak» etxera ekarri zuen: «Euskal Herrian eskolak eta unibertsitateak ixten ari zirela ikusita itxialdia hemen edo han pasatzeko erabakia hartu beharko nuela ikusi nuen».

Beranduago ailegatu ziren han neurriak: «jendea erakartzen duten ekitaldietatik hasi ziren eta konfinamendua beranduago iritsi zen».

Harriduraz bizi izan zuen doneztebar gazteak «espainiar estatuko neurri zorrotzen eta indar polizialen kontrol handiaren aitzinean, Alemaniak hainbertzeko patxadaz hartu izana. Azkenean, han ere, etxetik ateratzea zorrotz mugatu dute, nahiz eta askatasun gehiago eduki».

Birusaren hedapena ikustearrekin batera, itzulerak eragindako nahigabea ahantzita dute; eta momentu honetan, argi dute: *etxean bezala, inon ere ez.*



Elena Zabala Ezkurra (eskuinetik hasita hirugarrena) Australian izan da.

«Zapore gazi-goza utzi dit Australiako itzulerak»

ELENA ZABALA EZKURRA

DONEZTEBE

«Aspaldian» buruan zerabilkien bidaiak gozatzeko, «2019ko urrian» abiatu zen Australiarantz Elena Zabala (Doneztebe, 1997). «Ingelesa hobetzea eta herrialdea ezagutzea» zuen helburu eta zentzu guztietan «esperientzia ederra» izan da bizitakoa: «bai pertsonalki baita hizkuntzari dagokionez

ere». Etxetik eta ingurukoengandik urruti, «Australiako ohiturak eta paisaia» ezagutzeko aukera izan du. Bizimodu «lasaia» izan du egonaldian: «Noosan izan naiz, ikasketak eta lana uztartu eta lagunekin gozatzeko aukera izan dut».

Ustekabeko itzulera

Esperientzia «izugarria» baina aurreikusitako baino laburragoa

izan da: «Australian maiatzaren 10era arte gelditzeko nintzen eta ondotik Balin 17 egun pasatzeko asmoa nuen. Denpasaretik Madrilera hegaldia maiatzaren 28an hartua nuen». Azkenean, martxoaren 20an bueltatzea erabaki zuen: «ama eta bere bi lagun martxoaren 25era arte etorriak ziren bisitan. Martxoaren 15ean elkartu ginen Australia iparralderara elkarrekin joateko».

Hasierako «lasaitasuna» berehala bukatu zitzaion: «bi egunetara» deiak jasotzen hasi ginen eta berrietan mugak itxiko zituztela irakurtzean mugitzen hasi ginen ama eta bi lagunak etxera bueltatu ahal izateko». Beranduago hartu zuen abenturaren maleta ixteko erabakia Elena Zabalak: «ordu batetik bertzera informazioa aldatzen ari zen...». Bidaiatzeko momentua zen berarentzat eta Zeelanda Berrira joatekoa zen: «bidaiari bertan

«MALETA EGIN ETA INOR AGURTU GABE EGIN NUEN BUELTA. ITZULIKO NAIZ»

behera gelditu zitzaizkionean batetik bertzera ibiltzerik ez nuela izanen ikusi eta bueltatzeko aukera aztertzen hasi nintzen...». Lana ere ez zuen lagun: «jaketxe batean negoen lanean, birusa hedatu eta turismoak behera egiten bazuen lanik gabe gelditu izanen nintzen... Australia lanik egin gabe bizitzeko herrialde garestia da».

Martxoaren 21ean ailegatu zen herria eta «herria hutsik ikusteak inpresio handia» eragin ziola aitortu du: «bortz hilabeteren ondotik bueltatzeak eta lagunekin eta familiakoekin egon ezin izateak pena ematen dit».

«Hiru egunen buruan Florentziatik itzultzeko agindua jaso genuen»

JONE URIARTE JAIMERENA
ERRATZU

Marketina eta Publizitatea izeneko Goi Mailako Ziklo akaberako praktikaldia egiteko Florentziara (Italia) joatea erabaki zuen Jone Uriartek (Erratzu, 1997). Erasmus programan izena eman eta onartua izanik, otsailaren 22an hartu zuen hegaldia. Lur hartu orduko, ia-ia maleta urratzeko astirik gabe, herrirantz begira hasi behar izan zuen: «zuzen bidean hiru hilabeteko egonaldia behar zuena, arras laburra izan zen. Larunbatean ailegatu ginen Florentziara, asteartean itzultzeko mezua jaso genuen eta ortziralerako Madrilan ginen bueltan».

Ikasleek ez zuten erabakitzerik izan, agindua Eusko

Jaurlaritzatik ailegatu zitzaizen: «erran ziguten momentuan ez nik ezta bertze lauzpabortz ikaslek ere ez genuen bueltatu nahi, baina Eusko Jaurlaritzaren agindua izan zen eta ez genuen aukeraterik izan». Agindutakoa bete, bertze irtenbiderik ez zuten izan: «Erasmus-eko arduradunek bertze hegaldi batzuk erosi eta txartelak bidali zizkiguten».

Jarrera aldaketa

Astebete horretan «egoera nahiko normala» bizi izan zuten: «larunbatean, ailegatu ginen egunean bertan, atera zen lehendabiziko kasua Milanen». Pixkanaka, herritarren jarrera aldatu zela antzeman zuten: «kutsatu kopurua hazi zenean, geroz eta jende gehiago mas-



Jone Uriarte.

karak erabiltzen hasi zen eta urduritasuna nabariagoa zen». Antzeko bilakaera ikusi du herrira bueltatu denean: «alarma egoera jarri zutenean aunitz ez ginen egoeraz jabetzen baina egunak pasatu ahala kontzientzia piztu zaigu eta kezka nabariagoa da». Egoerak ondorio zuzenak eragin dizkio erratzuar gazteari: «Ita-

«ZORTEA IZAN DUT BUELTAN ENPRESA BAT IKASLE BILA ZEBILELAKO»

liako praktikak bertan behera utzi behar izan ditut eta esperientziaz ezin izan dut gozatu».

Praktikaldia

Orain praktikaldia berriz hasi behar izan du: «beranduago akituko dudan arren zorte handia izan dut. Euskal Herrira etorri eta enpresa bat praktiketako ikasle baten bila zebilen...». Etorri eta berehala hasteko modua izan zuen: «enpresan behin egon naiz eta orain telelanean nabil». Beranduago akituko du baina «nahiko lasai» dago, «gutieneko ordu kopurua murriztu dutelako».



Jon Aldabe, lagun batekin, Berlinen.

«Geure buruan murgiltzeko garaia dela uste dut»

JON ALDABE ERDOZAIN
DONEZTEBE

«Denboraldi batez Alemaniako hiriburuan bizitzeko eta alemana hobetzeko» asmoz, «iazko irailean» Berlinera joatea erabaki zuen Jon Aldabek (Doneztebe, 1997). Alemaniako hiriburuan «ekainera» arte gelditzeko asmoa zuen arren, nahi baino lehenago itzuli behar izan da: «egoera ikusita, Aste

Santuko oporretan etxera itzultzeko hartua nuen hegaldia aldatu eta itzultzea erabaki nuen. Konfinamendua hasi aitzinetik etxean nintzen».

Hizkuntza-laguntzaile lanetan

Irailaz geroztik, Estatuko Hezkuntza Ministerioak eskaintako dirulaguntzari esker, «Berlingo eskola batean hizkuntza-laguntzaile lanetan

ari da, «Batxilergoko titulaziorik gabe edo dena delako egoeratik ikasketak utzi eta gero, unibertsitatera sartzeko asmoa duten helduekin». Zehazki, «espainiera ikasten ari direnei, gramatika-eskoletatik at, ahozkoa lantzeko eta kulturaren ezagutzeko» bitartekoak eskaintzen dizkie.

Berriki arte, eskolan bertan, aurrez aurre, eskaintzen zituen saioak eta hasiera batean horixe zen asmoa: «maiatza akaberan bukatzen da programa, eta ekainean ere han gelditzeko asmoa nuen».

Asmoak asmo hutsean gelditu zaizkio. Izan ere, lehena go itzuli da: «Euskal Herriko eskolak ixten hasi bezain pronto, itxialdia han edo hemen pasatzeko erabakia hartzera behartua» sentitu zuen bere burua. Momentu horretan «sena» izan zuen gidari: «halako hiri erraldoi batek irentsiko ninduelakoan itzuli nintzen».

«ALEMANEI GURE KULTURAREN BERRI EMATEKO AUKERA IZAN DUT»

Etxea ikasgela

Etxean da, familia giroan, baina lanean; bertze aunitzei bezala «etxetik lanean aritzea» egokitu baitzaio: «zorionez, egungo baliabide teknologikoekin, nahiko aise aritzen naiz ikasleekin lanean». Dena den, distantziak dakartzan mugak ageriko egin ditu: «komunikatzeko gaitasunak garatzea zailagoa da eta lanak berekin dakarren elkarrekintza hori ere faltan dut».

Baten falta bertzeak betetzeko momentua dela uste du Aldabek: «Geure buruan murgiltzeko, ahal dela lasai biziitzeko eta bukatu gabe utzita-ko gauzei ekiteko garaia da».

«Etxean geldituta bertzeak laguntzen ditugu, ez da hain zaila»

NIKO MINDEGIA ELIZAGA DONEZTEBEKO ESKUBALOI JOKALARIA POLONIAN

Poloniako eskubaloi liga akituztat eman dute eta koronabirusaren pandemiak bertan topatu du Niko Mindegia eskubaloi jokalaria doneztebarra.

AITOR AROTZENA DONEZTEBE

Poloniako Wisla Plock taldean ari da Niko Mindegia eskubaloi jokalaria doneztebarra. Errekako harrobitik aterria, bere herritarrek berriki ikusteko aukera izan zuten Irungo Artalekun, Bidasoaren kontrako Europako txapelketako kanporaketan. Mindegiaren taldeak egin zuen aitzinera, baina gaur egungo egoera ikusita ezin jakin txapelketak aitzinera egingen duen. Niko Mindegia bera ere Poloniako bere etxean dago, ezin ateraz. Hango liga bukatuztat eman dute eta bigarren izan da bere taldea, Kielce taldearen gibeletik.

Niko Mindegiak aipatu digunez, «Polonian daukagun egoera ez da hor daukazuena bezain larria, kasu guttiago daude, baina birus honekin inoiz ez dakizu. Nik etxean gelditzea erabaki dut azken bi asteetan, nahiz eta hori, orain arte ez den derrigorrezkoa



Niko Mindegiak umorez hartu du etxealdia. UTZITAKOIA

izan Polonian. Orain arte atletismo estadio batera ateratzen ahal ginen laster egitera eta entrenamentuak mantentzen genituen. Hemendik aitzinera zorrotzagoa izanen dela aipatu digute, gehiago kontrolatuko dutela, han bezalako egoera. 3.000 kasu

baieztatu dituzte hemen. Halere, egunero 80-100 bat lagun kutsatzen dira, baina horrek ere goiti jo dezake tiroa bezala, beraz, prebentzioa eta pazientzia».

Mindegiaren ustez, osasun zerbitzuen egoera dela eta, «Poloniako hilkortasun-tasa

Euskal Herrikoa baino handiagoa izan daiteke. Hor, osasun arloan hagitzez hobe zaudete, nahiz eta murrizketek eragina izan duten. Halere, egia da kasuak lehenago detektatu eta neurriak lehenago hartu dituztela Polonian eta honela, dena kolapsatzeko arriskua ttikiagoa da».

«Denbora aprobeztatu»

Mindegiak hurbiletik segitzen du hemengo egoera. «Doneztebe eta inguruan kasuren bat edo bertze bada –dio–, eta lagunengatik eta familiarengatik, badakit kezka badela. Jende axolagabea ere bada, paso egiten duena eta bertzeak baino listoagoa dela uste duena eta horrek min handia eragin dezake». Bere ustez, garbi dago egoera honetan egin behar dena: «Ni ere ipurterre xamarra naiz, baina halere ez zait hain zail egiten etxean gelditzea. Jendea ohartu behar da bertzeak laguntzeko etxean gelditu bertzerik ez duela egin behar, ez da hain zaila. Taldeko gimnasiotik tresna batzuk ekarri eta garajejan jarri nituen eta horrela, eguneroko ariketa-errutina batzuk egiten ditut eta irakurri, serieren bat ikusi telebistan... Milaka gauza egin daitezke, bakoitzak bere gustukoa aukeratu eta denbora ahalik eta gehien aprobeztatuko. Eta familiarekin daudenak, ahalik eta gehien familiarekin egoteko aprobeztatzea, hori bai faltan sumatzen dut», aipatu digu Mindegiak.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

«Erremontarendako ideia berriak sortzeko baliagarria izan dadila»

XANTI UTERGA LABIANO
DONEZTEBEKO ERREMONTISTA

Oriamendi 2010 enpresak ez die kontratua berri erremontistei, krisialdi egoera gainditu arte. Xanti Uterga doneztebarrera da kontratuak ez berritzeak eragin duen egoerak ukitu duen erremontistetako bat. Ulertzen du egoera, kirol-jarduerarik gabe, kontratuen bideragarritasun ekonomikoa arras zaila baitzen.

Orain arte pilota Doneztebe-ko alkate karguarekin uztartu du Utergak, eta konfinamendu-neurriak erabaki zirenetik, «ez naiz ia entrenatzen ari. Goizetan udaletxetik pasatzen naiz eta arratsaldean umeak zaindu. Luzaketa batzuk, ahal dudanean, eta bertzerik ez», dio erremontistak.

Xanti Utergak enpresaren jarrera onargarritzat jo du, «baina guri erabakia hartua ailegatu zaigu, eta ezin izan dugu deus negoziatu kontratuei buruz. Enpresak jakinarazi zigun legezko gaia zela, ezin baitzen ERTEa jarri. Erremontista guztiok bertze lan bat dugu eta erremontea bigarren mailakoa da. Erran ziguten egoera horretan ezin zutela ERTE bat egin gurekin, eta kontratuak ez berritzea eta akitzea erabaki zuten. Guri ez ziguten kontsultarik egin eta ezin izan dugu deus erran» adierazi du Utergak eta hau gaineratu du: «jarduerara itzultzeko, lehenik eta behin, dena nola joaten den ikusi behar dugu. Enpresak eman beharko du bidea pilotariei zer eskaintza egiten



Xanti Uterga, etxean erremontiarekin. UTZITAKOIA

diguten ikusteko, eta guk oniritzia emanen dugu ala ez».

Badirudi badela Nafarroako enpresa bat erremontean sartu nahi duena, baina «gu, oraingoz, geldirik gaude, eta denbora hori gauzak nola datozen eta pentsatzeko erabili behar dugu. Hemendik aitzinera ikusiko dugu. Oraintxe bertan inorekin kontraturik gabe

gaude eta nola eboluzionatzen duen ikusiko dugu», aitortu du.

Modalitatea unerik onenean ez zegoen, «eta horrek ez du lagunduko—dio Utergak—. Baina Galarretara doan pilotazaleak leial izaten segituko du krisi honetatik itzultzean ere. Geldialdi horrek pilak kargatzeko eta ideia berriak izateko balioko duela espero dugu».



PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)



AUKERA BIKAINA Sunbillan!

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek**
eraikiak



✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

DONEZTEBE

Karrikak hutsik baina etxeak bizi-bizirik

Bertatik bertara edo etxetik lanean ari dira herritarrek gisa guztietako zerbitzuak izan ditzaten eskura

MARGA ERDOZAIN

Aste Santua norbera bere etxean pasa dugun horretan, egunero herriko historia eta istorioak idazten segitzen dute, udaberriko egunak kontatzen ari gara, ohiko errutinaren etorrerarekin ametsa eginez. Hainbat arlotan 'errutinak' aitzinera jarraitzen du.

Osasun zentroa, Gizarte Zerbitzuak eta Udala laguntzeko prest

Osasun zentroan berrantolaketa eta elkarlanarekin jarraitzen dute, protokoloak eta elkarlana sustatuz. Gure eremuan egunero kutsatuen berri ematen ari da, Nafarroako mapa osatzen laguntzeko. Zentrotik honako mezu garbi hau helarazi dute: birusak sorrarazten duen sintomatologia izanez gero, etxean gelditu behar dugu eta 948 45 60 01 telefonora deitu; inork laguntza beharko balu Gizarte Zerbitzuetakoei (948 45 17 46 edo 638 52 97 85) edo osasun etxeko gizarte langileari (948 45 60 01) deitzen ahal dio. Pediatra zerbitzua berriro martxan da, 09:00etatik 12:00etara.

Gizarte zerbitzuetako familia programak ere aitzinera darrai, aholkuak, laguntza edo sortutako zalantzei buruz solasteko telefonoak honako hauek dira: 948 45 17 46 edo 638 52 97 85. Zerbitzutik oroitarazten digute egun hauetan bizi dugun egoerak familiei elkarrekin denbora pasatzeko aukera paregabea ematen digula.

Udal bulegoa publikoari itxita egon arren, ohiko lanekin jarraitzen dute. Udal taldekideek ere bai Udal Federazio nola Gobernutik ezarritako protokoloak, argibideak eta elkarlana burutzen segitzen dute. Edozein kudeaketa edo informazioa behar izanez gero 948 45 00 17 telefonora deitzen ahal da. Askin Haur Eskolara-ko izen emateak atzeratua segitzen du.

Telelana

Telelanak ere tokia behar du. San Miguel eta Mendaur ikastetxeak, Agorreta musika-eskola, IKA euskaltegiak irakasle, ikasle eta era anitzetako profesional aunitz buru-belarri ari dira.



UTZITAKOAK

Futbol Taldekoak etxean

Berrogeialdi honek guztion sormena eta umorea berpiztu ditu eta sare sozialetan harribitxi aunitz aurkitzen ahal ditugu. Besteak beste, ederra da Doneztebe Futbol Taldeko kideek baloiak astintzen egindako bideoa. Etxetik etxera talde lan bikaina egin dute. Euren Facebook orrialdean edo erran.eus atarian ikus daiteke.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA



GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

ORBELA

SENDERISMOA ATERPETXEA

BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



744 484 361

ttipi-ttapa



Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com

«Positibo eman nuela aditzea gogorra izan zen arren, bizkortu naiz»

OLAIA LOIARTE ETXEKOLONEA

Indarra kenduagatik, ikasbide ederra eman dio birusak Olaia Loiarteri. Hasierako ondoeza gaindituta, «bizitzeko zein gutxi behar dugun» ohartu da zubietarra

N. BAZTERRIKA ZUBIETA

Nekea, ahulezia eta sukarra; horiek izan ziren Olaia Loiar- tek (Zubieta, 1996) koronabi- rusa harrapatu zuenean senti- titu zituen ondoez zantzuak. Dagoeneko «bizkortuta» senti- tzen du bere burua.

Noiz hasi zinen ondoeza sentitzen?

Martxoaren 19an ohatzera sartzerakoan ez nintzela ongi sentitu nuen. Hurrengo egu- nean, burua kargatua nuela jaiki nintzen. Tenperatura hartu eta 37,5°C eman nuen. Ostiral goiza bakarrik pasatu nuen, ez nuen ezertarako go- gorik eta goiz osoa ohatzean egon nintzen.

Zer zen zahazki sentitu zenuena?

Sukarra edukita, buruan kar- ga nabaritzen nuen. Horrez gain, gorputz osoan nekea eta ahultasuna sentitzen nituen.

Noiz erabaki zenuen medikua- rengana joatea?

Arratsaldean bertan, amak 112ra deitzera erabaki zuen. Sukarra, nekea eta ahultasuna sentitzen nituela adierazi nion, eta berehala, koronabirusaren sintomak zirela esan zidan. Baja eman zidan, asteburuan lanera joan behar bainuen. Amari ere baja eman zioten kutsatzeko arriskuagatik.

Joan bezain agudo egin zizkizu- ten probak?

Ez, ez zen erraza izan. Bai lan- tokitik, baita osasun zentrotik ere, probak egiteko hitzordua hartzeko telefono zenbakia eman zidaten. Hasierako egu- netan lineak kolapsatuta zegoen.



Olaia LoiarTE, birusaren aurkako gerra irabazita, irribarretsu. UTZITAKOIA

Erantzungailuak kudeaketa korreo bidez egiteko azaltzen zuen. Korreoa bidali eta bir- bidali nuen... Hirugarren egu- nean, nire kasua baloratu behar zutela erantzun eta bihara- munean deitu zidaten. Probak ezin izanen zizkidatela egin erantzun zidaten, kasu larri- nei garrantzia ematen ari ziren. Bai lanetik, baita osasun zen- trotik ere, berriz saiatzeko esan zidaten. Martxoaren 24an, batere esajeratu gabe telefo- noan ordu bat egon ondotik, hitzordua ematea lortu genuen eta biharamunean probak egin genituen amak eta biok.

Noiz jaso zenituen emaitzak?

Hurrengo egunean familia- medikuak esan zidan emai- tzetan positibo eman nuela.

Amak, berriz, negatibo. Emai- tza positibo atera zitekeela susmatzen nuen. Dena den, esperantza ez nuen erabat galdua. Gogorra da medikua- ren ahotik koronabirusaren proban positibo eman duzu- la aditzea.

Nolako ondorioak izan ditu zu- regan?

Ondorio fisikoak sukarra, bu- ruko kargak, nekea eta ahul- tasuna izan dira. Sukarrak bi egun iraun zidan, gero, nekea eta ahultasuna dira gehien nabaritu izan ditudanak. Usai- mena eta gustua ere galdu nituen. Psikologikoki okerrago eraman dut gaia. Jakin bada- kigu buruak lan asko egiten duela... Hedabideetako berriak entzuten ditudan bakoitzean

hotzikara sentitzen dut. Hil- dako eta positibo kopuruak etengabe areagotzen ari dire- la jakitea ez da mesedegarri. Hala ere, birusak badu bere alde positiboa. Gauza txikiez konturatzeko aukera eskaini dit. Bizitzeko zein gutxi behar dugun konturatzeko zara.

Zein neurri hartu behar izan di- tuzu?

Jendearekin inolako kontak- turik ezin izan nuela izan esan zidan medikuak. Ama hasierako momentutik nirekin zegoenez, biok etxean gelditu ginen...

Benito Mennin lan egiten duzu... Momenturen batean kezka hori sumatu duzu?

Martxoaren 19an, arratsaldez Benito Mennin lan egin nuen eta arratsaldea normaltasunez pasatu nuen... Bertako norbait kutsatu izanaren kezka banuen. Dena den, gaur egun, nire unitateko egoiliar eta langileak osasuntsu daude, eta horrek asko pozten nau.

Osasun zentrotik jarraipenik egin dizute?

Egunero deitu didate sintomez galdetzeko, baita asteburuetan ere. Oso eskertuta nago.

Zer esanen zenioke hasierako egunetan dagoenari?

Ahal den neurrian, lasai har- tzeke. Nahiz eta zalantza asko izan, familia, lagun eta osasun profesionalengandik jasotzen duzun babesak asko arintzen du egoera. Norbere buruarekin egoteko denbora eskaintzen du berrogeialdiak. Egunero- kotasuneko erritmo, kezka eta estresaren poderioz, orain arte zure buruari eskaini ezin izan diozun arreta emateko auke- ra da.

Herritarrok kontziente garelako uste duzu?

Beldurra nabaritzen hasiak gara. Urruti zegoen birus hura guregana etorri dela eta on- dorio larriak uzten ari dela ikusi dugu. Egoerari buelta emateko denok bat egitea beharrezkoa da. Zoritzarrez, norberari edo hurbileko bati pasatzen zaionean errazago ikusten da.

Bigarren mendizale topaketa kolokan

Bartzelonara egitekoa zuten bidaia azarora atzeratu behar izan dute; Sevillara heldu den urtean joanen dira

P. IRASTORTZA

2018an Aralarako Oidui mendian egin zen, hagitz arrakastatsua izan zen Euskal Herriko lehen-dabiziko mendizale topaketa. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroatik 200 lagunetik goiti bertaratu ziren, eta elkarteko mendi taldeak ez zuten huts egin. Bi urtez behin ospatzeko asmoarekin jarraituz, aurtengo udan izatekoa zen, hain zuzen ere, baina birus malapartatua dabilela eta, ezin izan da Ordizian martxoan datatua zegoen prestaketa bilera egin. Aurrerago zehaztuko da noiz eta nola egingen den, eta... lasai mendizale, berriak garaiz iritsiko zaizkizu eta!

Bartzelonara azaroan

Maiatzean Bartzelonara egitekoa zuten bidaia, 2020ko



Sevillara heldu den urtean.

azarora gibelatu dute eta Sevillara heldu den urtean joanen dira.

Benidormen egonaldi bakarra

Azken urtetan Benidormera bi irteera egiteko ohitura bazegoen ere, eta 2020an, epe motzera oztopoak gainditzeko itxurarik ez duenez, aurtengo maiatzaren 18tik 27ra antolatua zegoena, bertan behera uztea erabaki du elkarteak.

Inor «osasun arriskuan ez jartzeko» neurriak hartu ditu elkarteak

TTIPI-TTAPA

Nahiz eta gehientsuenek aldaketen arrazoiak ulertu, alde batetik zurrumurruak dabil-tzalako eta bertetik jendeak jakin dezan, elkarteak hartutako neurrien nondik norakoak argitu nahi izan ditu. Batetik, Covid-19 a zetorrela eta, elkarteak antolatutako ekintzetan, inor «osasun arriskuan ez jartzea» erabaki zutela argitu dute. Bertetik, birusak eragindako beldurratik «bidaia atzeratu» ditu. Erabaki hori Espainiako Gobernuak osasun-arauak jarri baino lehe-



Norvegiako bidaia ere gibelatu dute.

nago hartuak izan dira. Hortaz, agentziek dirua bueltatzeko jar zitzaketen oztopoen aitzinean, bidaia gibelatzea erabaki zutela gaineratu dute.

ESKUTITZA

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Besarkada bat eta eutsi goiari!

Arkupeak ataleko irakurleari:

Zer moduz? Ongi doa azken hilabeteko itxialdia? Atera ditugu gordelekuetatik, etxean erdi ahantziak genituen entretenigarri (partxisa, denbora-pasak, liburuak...) eta bertzelakoak? Aprobetxatu dugu aspaldian genituen txoko, trastu eta paperak antolatzeke, margotzeke, txukuntzeke edo garbitzeke? Deitu diegu aspaldian solastatu gabeak ginen ezagun, lagun edo familiakoei? Bai, ziur gehientsuenek, antzeko moduan pasatzen ari garela, egun hauek.

Ez ditugu ahantziko, eta besarkada bat bidali nahi diet, etxean edo erietxean dauden gaixoei; bertze arazoengatik (ezbehar, estutasun ekonomiko, nahigabe, etab.) inork desio ez duen egoeran daudenei; eta batez ere, inguruan heriotzen bat izanik, haiek merezitako azken agurra eman ezin izan duten familiei.

Aipamen eta esker berezia zor dizuegu, etxetik kanpora –aunitzetan zuen osasuna arriskuan jarriaz– gu eta gure ingurukoak, zainduz, eta gure beharrak aseak izan daitezen saiatuz, egunero lan ordainezina egiten duzuen guztiei. Elkarteko jubilatuen eta beren familiakoen partez, mila esker bihotz-bihotzez!

Eta... 'Etxean gelditu zaitez!' aholkuari orain artean bezala jaramon eginez, ea denon artean, gaitz madarikatu hau uxatzen dugun. Bertze eragozpenei bezala, honi ere irabaziko diogulakoan, besarkada bat denontzat eta eutsi goiari!

Gabina Goia izanen da Arantzako ordezkaria

TTIPI-TTAPA

Osatu da iaztik hutsik zegoen Arantzako arduradun edo delegatuaren kargua. Oraindik, ofizialki, Elkarteko Batzordeak hurrengo bileran izendatu behar badu ere, Gabina Goia Iparragirre izanen da hementik aitzinera ordezkaria.



Aldaketen berri izateko erne egoteko deia egin dute

TTIPI-TTAPA

Ustekabeko egoera honek hainbat gorabehera sortu dituenez eta gaurko bizi-moldeak noiz arte dauden jakiterik ez dagoenez, aipaturiko ustekabeak, erabakiak, aldaketak edo akordioak direla eta laster bertze hainbat erabaki jaki-

narazi beharko direnez, bai TTIPI-TTAPAREN baita herri-delegatuen bidez iragarriko dituztela adierazi dute. Era berean, Doneztebeko bulegotik ere aldaketen berri emanen dutela argitu dute. Horren aitzinean, «begiak eta belarriak tente izatea komeni da».

Beilatoki zerbitzua azkartu eta neurriak zorrotz dituzte

Salbuespen egoera honetan, prozesua egokituz ari dira lanean Izarra, Irache eta Baztan-Bidasoa beilatokiak

TTIPI-TTAPA

Koronabirusaren aitzinean Osasun Sailak agindutako aldaketek eragin zuzena izan dute beilatoki zerbitzuetan. Bertzeak bertze, orain artean indarrean zegoen 24 orduko denbora-muga baliogabetu dute, ehorzketa edo errausketa prozesua lehenago egin dadin.

Covid-19ren ondorioz hil direnen kasuan, desinfekzio prozesu berezia egitearekin batera, prestaketak, hil-beilak, hileta-mezak eta gorpuaren lekualdaketak galarazi dituzte.

Errausketa zerbitzua, orain artean bezala, Nafarroan zein Gipuzkoan egin daiteke, egoerak ezarritako epeak betetzeko.

Koronabirusaren eraginik pairatu ez duten hildakoen kasuan ere, estatuko martxoaren 30eko buletinak zehazten duenaren arabera, hil-beilak eta hileta-mezak debekatuta daude. Eta lurperatze unean edo errauste-agurrean hiru lagun bakarrik egon daitezke (euren artean bi metroko distantzia mantenduz). Prozesua egokituz, lanean ari dira eskualdeko langileak.

«Hurbiltasunaren, gizatiartasunaren eta enpatiaren aldeko apustua egiten dugu»

MIKEL LEGARRA

IZARRA TANATORIOA

«Hileta-zerbitzuan gertatzen ari diren praktika batzuk ez zaizkigu egokienak iruditzen». Halaxe adierazi du Izarra tanatorioko Mikel Legarrak. «Koronabirusaren infekziorik ez daukan hildako bati zergatik ezin zaio eman hildako batek merezi duen tratua, gutxieneko estetika-lanak egin eta gutxieneko agur egoki bat egiteko?» edo «Zergatik da 'premia larrikoa' adibidez tabakoa eta ez agur gutxieneko eta egoki bat egitea norberaren hurbilekoenei?». Hartu diren neurri guztien gaitetik, «hildakoak ez direla merkantzia hutsak» argitu du Legarrak. Egoera kudeatzeko, «profesionaltasunaren, hurbiltasunaren, gizatiartasunaren, enpatiaren, naturaltasunaren eta neurritasunaren aldeko apustua» egiten dutela gogorarazi du: «era askotako tresna eta mekanismoak eskainiko dizkiegu hildako pertsonen hurbilekoei. Beti ere osasun agintarien erabakiak errespetatuz».



Mikel Legarra.

«Zerbitzua gurekin egiten dutenei doluan laguntzeko psikologo talde baten laguntza eskainiko diegu»

ANDONI ANDUEZA

IRACHE TANATORIOA

Andoni Anduezak ongi eza-gutzen ditu beilatokian izan diren aldaketak. Kontatu digunez, hasteko, «hildakoa-berri emateko tanatorio-ra deitzean, Covid-19ak eragindako hildakoa den edo ez» argitu behar da. Izan ere, «birusak jota hildakoek bilketa berezia izanen dute, kutxa



Andoni Andueza.

barrenean poltsa batean bildu beharko da (...). Poltsa eta kutxa itxi beharko dira eta ezin izanen da berriz ireki». Horrekin batera, koronabirusak jota hil direnen kasuan, «betiko aukerak» daudela argitu du: «gorpua lurperatu edo erraustu egin daiteke». Dena den, elizkizunak ezin direla ospatu argitu digu: «alarma egoera hau pasatzen denean eginen dira». Hurbilekoak behar bezala ez agurtu izanaren sentsazioari aitzin egiteko, Irache Tanatorioak eta San Juan de Dios ospitaleak hitzarmen bat egin dute: «zerbitzua gurekin egin dutenei psikologo zerbitzua eskainiko diegu dohainik».


«Lan baldintzak errazak ez diren arren, maitasun eta laguntza osoa eskainiko dugu»

JAVIER TELLETXEA

BAZTAN-BIDASOA TANATORIOA

Egungo egoerak, bai Covid-19ak eragindako zerbitzuetan baita gainontzekoetan ere, eragindako aldaketetara «azkar» egokitu da Baztan-Bidasoa ehorztetxea. Izan ere, «bertze lurraldeetan gertatzen ari zena ikusita zetorrena prestatzen eta materiala eta informazioa geureganatzen hasiak» ziren.

Argi dute «guk eskaintzen ditugun zerbitzuak ez direla erakargarriak bezeroentzat», eta horregatik, «gauzak zailtzen direnean, gure profesionaltasunak ezin du hutsik egin». Hori horrela, «baldintza berezietan ere, orain artean bezala, aholkularitza juridikoa eta dolua eramaten laguntzeko erakundeekin lan handia» egiten ari dira. Gisa bertsuan, Baztan-Bidasoako langileek bizitzen ari garen egoera honetan «bezeroen erantzuna eskertu» nahi izan dute. Lan baldintzak «errazak ez diren arren, maitasun eta laguntza osoa eskainiko» dutela gaineratu dute.



Elizondoko tanatorioko irudia.

ERRAN.EUS inoizko bisita kopururik handiena... eta goraka

Joan den urtetik honat %149,8 hazi da bisita kopurua eta aurten, urtea hasi denetik %60,1 Martxoaren 12an koronabirusaren lehenbiziko berriak sartzen hasi zenetik, berriz, %20 hazi da ERRAN.EUS webguneko erabiltzaileen kopurua

TTIPI-TTAPA

Urtetik urtera, sendotzen ari da ERRAN kanal digitala eta, beldurrik gabe erran dezakegu Xorroxin irratia eta TTIPI-TTAPAK elkarlanean egiten duten edizio digitala Nafarroako medio digitalen artean erabiltzaile gehien eta audientziarik handiena duen hedabidea izateaz gain, mendialdeko tokiko informazioaren kontsumoan oinarri-oinarriko azpiegitura bihurtu dela. 2019ko datuak aztertuta, kopuruak adierazgarriak dira benetan.

2019 osoan 1.420.839 orri; 2020ko martxoan 225.050

2019 urte ona izan zen euskarazko hedabide digitalentzat. Nazioarteko joerei jarraiki, euskarazko medio digitalen kontsumoa %19 handitu zen banaz bertze 2018arekin konparatuz. Alabaina, ERRANen kasuan hazkunde hori %52koa izan zen, eta oraindik handiagoa da 2020ko urte hasierako datuekin konparatuz gero: %149,8koa zehazki. Baina zer da zehazki *ikusitako orri kopurua* kontzeptuarekin adierazi nahi dena? Bada, Google honelaxe zehazten du: bisita baten barnean, erabiltzaileak orri bat baino gehiago ikus ditzake; adibidez, portada eta gero albiste bat edo bi.

Beraz, datu horrek epe jakin batean erabiltzaileei erakutsitako orri kopurua adierazten du.

Banaz bertze, hilero 20.918 erabiltzaile 2019an

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, horrek ere hazkunde nabarmena izan du 2019an.

MUGIKORRETIK SARTZEN DIRA ERABILTZAILE GEHIENAK, %84,5

Kopurua kalkulatzeko, Google-k bere kalkuluak egiten ditu eta, finean, epe jakin batean zenbat gailu sartu diren kontatzen ditu, eta horren

TRAFIKO ITURRIAK: %42 FACEBOOK %28 BILATZAILEAK %23 ZUZENEAN

Apustu egokiaren emaitza

TOKIKOM euskarazko 66 toki komunikabidek osatutako sarea da, eta horien artean daude ERRAN, TTIPI-TTAPA eta XORROXIN irratia. «**Edizio digitalak ateratzeko bakoitzak bere aldetik egiten zituen ahaleginak bateratzea**» izan zen TOKIKOM gorpuztu ondotik bazkideek egin zuten apustua. Ahaleginak buruhauste eta lan handia ematen badu ere, datuek argi erakusten dute apustu egokia izan zela: **euskarazko medioen banaz bertzeokoaren gainetik hazten ari gara urte urte**, eta hori arras seinale ona da. Historikoki, **euskarazko toki komunikabideak sortzeko arrazoi nagusietako bat euskarazko edukien areagotzea da, eta zenbakiok argi erakusten dute zeregin horri ongi erantzuten diogula.**

Zenbakietatik haratago, **edizio digitaletan egindako lanak ireki dizkigun bideak ere azpimarratu beharra dago. Elkarlanerako eta berrikuntzarako kultura** bat zabaltzen ari gara pixkanaka, eta hainbat alderditan punta-puntako medioak gairela erran daiteke: publizitaterako kanal digitala, kudeaketa aurreratuan egiten ari garen aurrerapausoak, *Ttap* eta *Zut* aldizkari digital natiboak sortu izana...

Tradizioz **arazo eta desabantaila gisa bizi izan ditugun ttikitasuna gure aldeko tresna bihurtzen ari gara**, saretzeak eta ahalegin ttikien batuketak ematen digun indarrari esker.

arabera kalkulatu du zenbat erabiltzaile izan dituen webgune batek. ERRANen erabiltzaile kopurua goraka doa progresiboki. 2018ko martxoan 12.726 erabiltzaile zituen; 2019ko martxoan 15.986, eta 2020 martxoan 37.606 erabiltzaile izan ditu. Gainera, bisiten banaz bertzeko iraupena luzatu eta errebote tasa jautsi dela kontuan hartzen badugu, datuen irakurketa arras positiboa da.

Facebook eta sakelekoen pisua

Euskarazko komunikabideak, eta zehazki tokikoak, ez daukete nazioarteko joeretatik libre. Webguneetako trafikoaren analisisan ere argi gelditzen da hori. ERRANi dagokionez, nabarmen, sarbide nagusia Facebook sare soziala da.

Bertzalde, webgunean sartzeko gailuei erreparatuz gero, etengabe hazten segitzen du trafiko osoan sakeleko telefonoek duten pisua. 2018ko amaieran bisiten %64 mugikorretatik egiten zen, 2019ko abenduan %76, eta pasa den martxo akaberan kopuru hori %84,5ekoa zen. Ordenagailu arruntak bisiten %23 dira, eta tableta %2 pasatua.

Banaz bertze 17 eduki eguneroko ERRAN webgunean 6.291 eduki argitaratu ziren 2019an, hau da, 17 eduki baino gehixeago egun bakoitzeko, batez beste.

Eduki horien artean gehienak artikuluak ziren (%66), ondorengo audioak (%22), argazki galeriak (%9) eta gainerako %3a bideoak.

Bitxikeriak

Hauek dira 2019an ikustaldi gehien izan dituzten edukiak: **1. Jon Barberena bertsolaria eta idazlea hil da, 2. Maiatzeko udal hauteskundeak atal berezia, 3. Gure Zirkua Elizondora eta Leitzara etorriko da, 4. Bi zauritu Berako tunelaren irteeran izan den trafiko istripuan, eta 5. Zubigainekotik berdintasunerantz.**

Hazkunde progresiboa hilabetez hilabete


Azkeneko gertaerek hedabide digitalen kontsumoa handitzea ekarri dute. Halere, ERRAN.EUSen hazkundera progresiboa da.

-  @ttipi_ttpa
-  Ttipi-ttapa aldizkaria
-  744 48 43 61




mila esker


SESIOAK URTEKO/HILABETEKO




DATU OROKORREN BILAKAERA



ITURRIA: SARBIDEA NONDIK



GAILUAK



DATU ITURRIA: Google Analytics

SINADURA: Ttipi-Ttapa

Hainbat baliabide gazteen eskura paratu ditu Ernaik

Konfinamendu egoera akitu arte, *Jakintzak trukatzuz, buruak formatuz* egitasmoa landuko du sare sozialetan

TTIPI-TTAPA

«Malerrekako gazteria hainbat gairen inguruan hausnartzera bultzatzea eta informazioa eskaintzeko aukera ireki eta erraztea». Horixe da, hain zuzen, Malerrekako Ernaik martxan paratu duen *Jakintzak trukatzuz, buruak formatuz* egitasmoaren helburua. Hala, «sare sozialen bidez, formakuntzarako baliabideak» igotzen hasia da: dokumentalak, artikulatuak, bideoak...». Eta bide horretan segitzeko asmoa du koronabirusak eragindako konfinamendu egoerak irauten duen bitartean.

Apirilaren 2an egin zuten estreinaldia, *Tortura* dokumentalarekin. «Otsailaren 13an argitaratu genituen herriz herriko datuekin nolabaiteko lotura eginez aukeratu genuen torturaren inguruko dokumentala». Lehenbiziko saioak nolako erantzuna izan zuen jakitea zaila den arren, Ernaik adierazi dutenez, «seguru gaude jendeak tortura gure herrian pairatutako praktika izan dela jakiteko lagungarria izan dela». Gainerakoan, bertzeak bertze, «feminismoa, Euskal Herriko historia eta euskarari buruzko gaiak» landu nahi dituzte. «Konfinamendu egoera hau akitzean lehenagotik pentsatuta geneuzkan dinamikak martxan paratzea dugu burutan», adierazi dute.

Krisi soziala

Malerrekako Ernairen irudiko, «Covid-19ak osasun arazoaz gain, krisi soziala ekarri du». Taldearen hitzetan, «gure herriaren bizitza ekonomiko, politiko eta sozialean eragin



Eskualdeko Ernai taldeetakoak.

zuzena duen gaia denez, osasun krisitik haratago ulertu behar dugu». Koronabirusari emanen zaion aterabidea «ez dela neutrala izanen» uste du, «langileriaren lan baldintzek okerrera egin dute, prekarietateak goiti egin du eta orain arte lanean zeuden aunitz kaleratuak izan dira». Horregatik uste du «krisiaren ondorioak, betiko modura, langileok eta sektore prekarioenak jasanan ditugula».

Espainiako gobernuarekin kritiko

Koronabirusa tarteko sortu den egoeran «espainiarestatuak hartutako jarrera salatu» nahi izan du Ernaik, «Espainiako nazionalismoa gure herrian zabaltzeko baliatu» duela iritzita: «militarren presentzia ezarriz eta indar polizialen indarkeria areagotuz». Horrekin batera, «interes ekonomikoak berriz ere bizitzaren gainetik jarri izana» kritikatu du «elite ekonomikoak eta haien morroi diren alderdi politikoak kapitala eta dirua jarri baitute bizitzen gainetik». Akitzeko, presoak ere gogoan izan ditu, «berrogeialdia baliatuz, muturreko isolamendu egoeran dauden euskal preso politikoei idazteko deia luzatuz».



JAIONE ZABALO

Desinfektatze lanak Ezkurran

Beste hainbat herritan bezala, Ezkurran ere hondakin guneak eta eremu komunal guztiak desinfektatzen aritu dira. Gainera, etxetik atera ezin dutenei elikagaiak, botikak eta produktuak eramateko boluntario sarea sortu dute. Hori bai, segurtasun neurriak zorrotz betetzeko konpromisoa hartua dute.



Saldiasko frontoia itxita. AINTZANE LEIZA

Saldiasko frontoia eta parkea itxita eta kaleak desinfektatuta

AINZANE LEIZA SALDIAS

Alarma egoera ezarri zenean, Nafarroako Gobernuak osasun sailaren gomendio eta aginduei segituz, eta herritarren segurtasunerako, herriko frontoia eta parkea itxi zituzten Saldiasen. Horrela jarraituko dute aginduak dioen artean.

Bestalde, herriko toki komunalak desinfektatzeko lanak egiten dira astero: frontoia, parkea, kale iskinak, kontenedoreak eta eliz ataria besteak beste. Hemendik animo herritar guztiei eta etxean geratu gaitezten gaur, biharko egunaz disfrutatu ahal izateko.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Bertako produktuen eskaintza zabala eskuragarri dute

Animatzeko bideoa, zaintzeko elikagaiak eta informazioa jasotzeko difusio taldea prest

TTIPI-TTAPA

Berrogeialdian ere saretuta gaude herrian. Konfinamenduko hirugarren astean herriarren mezuak bilduz bideo ederra egin zuen Udalak. Apirilaren 4an, berriz, ospitaleetan lanean ari diren langileen, merkatarien, gaixotuen eta herriko xahar zein umeen alde egindako txalo zaparrada indartsuak erantzun bikaina izan zuen.

Bertakoa eta sasoikoa

Momentu honetan «inoiz baino garrantzitsuagoa» da bertako eta garaiko produktuak kontsumitzea eta horretarako ere aukera zabala jarri dute eskura ekoizleek: arraultzak, arkumea, babarrunak, ardi esnea, betizuak, arkumea, antxumea, oilaskoa... Interesa duten harremanetan jartzeko



Elkar animatzeko bideoa egin dute.

kontaktuak Udalaren web orrialdean lor ditzakete.

Difusio taldea

Etetik eta etxera informazioa Whatsapp bidez jasotzeko modua ere eraiki du Udalak. Hala nahi dutenek 687 83 23 86 zenbakia euren telefonoan gorde eta 'alta' bidaltzeko deia egin du. Bide batez, zenbaki hori «informazioa jasotzeko bakarrik» dela argitu du «kontsultak Udaleko zenbakian» egin behar direla oroitaraziz.



UTZITAKOIA

Maskarak egin eta oparitu

Mari Karmen Azpiroz, ilobaren laguntzarekin, maskarak josten aritu da etxean. Ez dira Osakidetzak edo Osasunbideak homologatutakoak, baina nolabaiteko babesa emanen dutelakoan nahi duten guztiei oparitzen aritu dira. Elkartasunak ez du mugarik Goizuetan.



«Zorionez herrian laguntzeko borondate handia dago»

MAIALEN APEZETXEA ETXEBERRIA

Udaleko zinegotzia den Maialen Apezetxeak hurbiletik ezagutu du Goizuetan koronabirusari aurre egiteko eraiki duten laguntza sarearen sorrera: «inguruko herrietan martxan jartzen ari zirela ikusita, herrian ere sortu beharko genukeela pentsatu genuen». Gaia esku artean zutela, «Nafarroako Gobernuko eredu bat» ailegatu zen eta «horri ingurukoek gehitutako alderdiak gehituz» aritu dira lanean.

Laguntza sarea martxan, behar duenarentzat

Hala, «udaleko mugikor zenbaki bat ireki» zuten, bai boluntarioek izena emateko, baita laguntza behar dutenek eskatzeko ere». 24 orduko epea ireki zuten boluntarioak biltzeko eta elkartasun handiz erantzun zuen herriak: «Hamabi boluntariok eman zuten izena». Horiei «egindako protokoloa bidali» eta «zalantzak galdetzeko aukera» eman genien. Ez dakite sareaz behartuko diren, «zorionez herrian lagun, bizilagun, familia sare asko daude eta herritarrek laguntzeko borondate handia dute». Dena den, «badaezpada» sortzea erabaki zuten.

Laguntzeko prest daude eta prozesua zehaztuta dute: «laguntza behar duenak 647 86 21 79 telefonora deituko du eta ni izanen naiz koordinatuko duena. Lehendabizi boluntario bati deitu eta momentu horretan aukerarik baduen galdetuko nioke. Noski, ezin da sintomarik izan eta konfidentzialtasun osoa eskatuko zaio. Hala bada, laguntza eskatu duenarekin harremanetan jarriko da.

Erosketa egin eta tiketa niri bidaliko didate, inondik inora gehiago kobratuko ez zaiola bermatzeko». Ordainketari dagokionez, «dirua ez erabiltzeko aholkatu dutenez, dendaria eta laguntza eskatu duenaren artean erabaki beharko da txartelarekin ordaindu edo kontu bat irekita utziko den, hau dena bukatzean ordaintzeko».

Botikak eske joan behar denean, berriz, prozesua bestelakoa izanen da: «boluntarioak Osasunbideko txartela hartzera joan beharko luke lehendabizi» eta erosketak egin gero.

Etxean gelditzea ere bada laguntzea

Apezetxeak gainerako herritarrek ere laguntzeko aukera badutela adierazi du: «etxean gelditzea da egin dezakegun hoberena. Lana egin behar dutenen kasuan eskuak ongi garbituz, distantziak...».

«Inpotentzia eta amorrua barrenean ditut oraindik»

ZURIÑE GOIKOETXEA SAIZAR-ARESOKO ERIZAINA

COVID-19az kutsatutako gaixoak artatzen ibilita, barrenean sartu zitzaien gaitza. Hamabostaldia bete du etxean eta alta jaso orduko bata urdina jantzi beharko du berriro

E. IRAOLA ARESO

Sei urte daramatza erizain lanetan Zuriñe Goikoetxea Saizar aresorak. Nafarroako Ospitale publikoan ari da lanean eta COVID-19az kutsatutako gaixoak artatzen ibili da. Aurreneko lerroan aritzen denak, badu kutsatzeko aukera eta gaixorik egon da Zuriñe. Iluntzetako txalo zaparrada ongi irabazia dutenen adibidea da. Hau irakurtzerako medikuek etxean egoteko agindutako hamalau egunak beteak izanen ditu, ea berri onak heltzen zaizkion.

COVID-19ak nola aldatu du zuen lan jarduna?

Nafarroako Ospitaleko Virgen del Camino izenez ezagutzen den B pabilioiko eraikin orokorreko 5. pisuan ari naiz lanean. Pisu hau neumologia zerbitzuko ingesatuena da. Orain bertan, ordea, eraikin orokorreko pisu guztiak COVID-19az gaixoturiko gaixoentzako soilik daude irekita. Ez dugu bestelako patologiarik jasotzen. Orain, berezkoa baino langile kopuru handiagoarekin ari gara lanean. Jarri diguten ratioa goiz eta arratsaldeko txandetan sei gaixokoa da erizain/auxiliar bakoitzeko eta gauetan, berriz, zortzi edo bederatzikoa. Ospitaleko hainbat zerbitzu gelditu egin dira, hala nola, kontsulta programatuak, kirurgiak, frogak... Leku hauetan lan egiten duten langileak lekuz aldatu dituzte eta, orain, COVID-19a duten gaixoak artatzen

ari gara langilegoaren kopuru handi bat.

Eragina izan du zuen lanaldian ere?

Alarma egoera jarri zutenean, lehenengo astean, nik 8 eguneko astea egin nuen. Ez da ohikoena, baina lanerako zenbat jende izango ginen eta txandak nola antolatu ikusi arte deskantsurako aukera gutxirekin ibili gara gehienak. Goiz eta arratsaldeko txandak 7 ordukoak dira, gauekoak berriz 10 ordukoak. Batzuk gauez edo goizez soilik egiten duten lan, besteak hiru txandatan ibiltzen gara.

Babesteko materiala eskura izan duzue?

Gaixoak etortzen hasi aurretik tailer bat eman ziguten EPIa

(norbera babesteko ekipamendua) nola jarri eta kendu behar genuen ikasteko eta prebentzio sailekoak material aldetik nahikoa bazutela esan ziguten. EPIaren barrenean FPP2 FPP3 maskarak sartzen dira eta ez kirurgikoak. Lehenengo egunetan, ordea, maskara kirurgikoarekin ibili gara lanean. FPP2 eta FPP3ak bazeuden, baina ez zizkiguten ematen beharrezko momentuetarako soilik zeudela argudiatuta. Egia da gaixoari ere maskara kirurgikoa janzteko esaten geniola gela barrura sartu behar genuen. Hala ere, beti ez da erraza. Mugimendu murriztuko gaixoak, egoera kognitiboa baxua duten gaixoak, oxigenoa behar duten

gaixoak... dauzkagu eta denak ez dira gai edo ezin zaie jarri edo jaten eman behar zaie eta eztula ere egiten dute, hori baita gaixotasun honen sintometako bat.

Lanean nenbilen 5. egunean eman ziguten FPP3 bat bakoitzari, baina luzerako gorde beharko genuela esan ziguten. Hau da, plastikozko poltsa batean gorde eta berrerabili egin beharko genuela. Mantal aurrekoa ere hasieran nahi beste alda genezakeen, baina astea aurrera joan ahala materiala bukatzen ari zela ikusi genuen. Ongi pentsatu behar genuen gelara noiz eta zenbatetan sartu, ez zituzten mantal aurreko gehiago ekartzen eta dagoeneko gutxi gelditzen ziren. Beraz, EPIa ez dugu osotasunean eskura izan. Ez dugu langileok babesteko beharrezkoa zaigun maskara FPP2 edo FPP3rik edukitzeko aukerarik izan gaixoarengana hurbildu behar genuen eta ezta lasaitasunik behar genuen guztietan mantal aurrekoa aldatzeko ere. Lanera sartu eta txanda bukatu arte maskara kirurgikorik ez dugu kentzen.

Noiz hasi zinen sintomak edukitzen?

Sintomekin martxoaren 25an hasi nintzen gripea izaten deneko sentsazioa nuen: gorputza minbera, nekea, sukarra eta buruko karga handia. Martxoaren 27an, egin zidaten proba eta positiboa ateratu zen. Burua kargatuta eta gorputza motel nabaritzen dut, energia gutxirekin. Hala ere, egunetik egunera hobeto sentitzen naiz eta sukarra ere geroz eta gutxiago daukat. Eztarrian azkura jartzen zait eta eztulka hasten naiz noizean behin.

Ze neurri hartu behar izan dituzu?

Hamalau egunez ezin izan naiz etxetik ateratu, lanean baja eman didate. Etxean maskarilla kirurgikoarekin nabil, nire gelan bakarrik egon beharra daukat, komun bat soilik erabili eta jateko platerak basoa eta mahai tresnak aparte dauz-

Datu ofizialak vs errealitatea

Egoera barrutik ezagututa, datu ofizialek ez dutela errealitate osoa erakusten salatu du Zuriñek: «jende asko eta asko baitago testa egin gabe sintomekin edo sintomarik gabe, baita osasun langileen artean ere». Testak ez daudela eskura azpimarratu du, ezta osasun zerbitzuetako langileen artean ere: «ez baduzu sukarririk ez dizute proba egiten eta oraintxe langileak behar dituztenez, kutsatua dagoen jendea lanean aritzeko aukera dago». Hala gaineratu du: «seguru nago, kutsatuen kopurua esaten dutena baino handiagoa dela».

Etxean gelditzearen garrantzia

Eskaera argia egin du: «benetan etxean gelditu behar dugula sinistu behar dugu». Eta etxean gelditzeko agindua ulertu ez dutenei adierazi die: «beraiek arriskurik ez dutela uste badute, besteengandik egin dezatela gutxienez. Horrela gaixo kopurua ez da hainbeste haziko eta osasun zerbitzuetan egoera ez da kontrolaezina izango».



Zuriñe Goikoetxea Saizar Aresoko erizainak Nafarroako Ospitale publikoan egiten du lana.

kat, nik bakarrik erabiltzen ditut eta amaitutakoan lejiarekin garbitu. Etxea ahalik eta desinfektatuen eduki eta oheko arropak ere maiz aldatzen ditugu eta etxekoekin distantzia mantenduz beti.

Zuen lanak duen arriskuaren parte da, baina prest al zeunden?

Emozionalki nahiko baju nago, prozesu honekin lanean hasi ginenean oso lasai negoen, telebistan entzundakoarekin gripe itxura zuela eta jende

gazteak gripe soil bat bezala pasako zuela esaten zuten. Adineko jendea edota patologia kronikoa duten gaixoei gehiago eragingo zuela esaten zuten. Errealitatea bestelakoa da. Aurrekari garrantzitsurik gabeko jendea ingresatzen ari da, 30-40-50 urteko jendea. Ospitalean dauden bitartean prozesua okertzen hasten bada oso azkar okertzen dela ikusten duzu, ordu erdi batean egoera osotara alda daiteke eta gaur daukazun gaixoak bihar jadanik ez daude.

Lan egiterakoan eragingo dizue horrek?

Bai, dudarik gabe. Gelara sartzen zarenean lana ahalik eta azkarren egin nahi duzu, ahalik eta kontaktu gutxien izateko. Gainera, segurtasun tarte mantendu beharra daukagu baina batzuetan ezinezkoa da: oxigenoa jarri behar badiozu, jaten eman, ohea egin, ohean garbitu, botikak zainetik jarri.... Badirudi ez duzula bere ondora gerturatu

nahi, baina orduan gaixoa bakarrik dagoela eta konpainia nahi duela konturatzen zara eta bazoazela esaten diozunean eta 'dagoeneko bazoaz' erantzuten dizunean ez da batere erraza. Familiakoek ere informazioa nahi dute, denak urduri eta zerbait jakin nahian daude.

Nahiz eta guztiek odol hotza dugula eta ohituta gaudela pentsatu, hau dena bizitzeko ez nengoela prest ikusi dut. Inoiz baino nekatuago eta tristeago nagoela sentitu dut, lanean baita etxean ere. Nire egunerokoan asko eragin dit, burua ezin deskantsatu eta fisikoki tentsio batean egoteak. Orain birusak ni harrapatu nau eta egia esan disgustu

«JASOTAKO LAGUNTZA ETA ANIMOAK ESKERTU NAHI NITUZKE»

handia hartu nuen. Dagoeneko onartu dut gaixotu naizela, baina inpotentzia eta amorrua barrenean ditut.

Zein da gaixorik zeundela jakitean izan duzun kezka nagusia?

Nire ingurukoak kutsatu ote nituen, horixe izan dut egun hauetan behin eta berriz buruan. Zorionez denak osasuntsu mantentzen dira eta hala izatea eskatzen dut.

Noiz izango zenuke lanera itzultzeko aukera?

Nire osasun etxeko mediku eta erizainek egunero deitu eta prozesuaren jarraipena egiten didate, ez dakit noiz izango dudan aukera bueltatzeko, oraingoz hamalau egunak etxean pasa eta egunean egunekoa nola doan ikusi beharko da. Pentsatzen dut isolamendua pasa eta berehala bueltatu beharko dudala lanera.

Eta oraindik bada, etxean gelditzeko agindua ulertzen ez duenik...

Gizartea agindu horrek benetan duen garrantziaz ohartzea gustatuko litzaidake. Hasieran sinestarazi ziguten bezala, ez dela gripe soil bat ohartzea. Ez dakigu nola eragingo duen gorputz bakoitzioak, espero gabeko erreakzioak ikusten direlako. Pazientzia izan eta babesteko beharrezko neurri guztiak hartzea ezinbestekoa da, benetan etxean gelditu behar dugula sinistu behar dugu. Beraiek arriskurik ez dutela uste badute, besteengatik egin dezatela gutxienez. **Baina kontrakorik ere bada. Txalo zaparradak, elkartasun ekin-tzak...**

Bai eta jasotako laguntza eta animoak eskertu nahi nituzke. Osasun langile guztioi indarra ematen digute ekintza eta babes adierazteko hitz horiek guztiek. Egia esan oso hunkigarria da gizartean sortu den mugimendu solidarioa, egunero entzun dugun txalo eta soinu zaparrada, materialen laguntza, gauza berriak sortzeko ideiak.... Denak dira ongiatorriak.

«HAU DENA BIZITZKO EZ NENGOELA PREST IKUSI DUT»

«ORDU ERDI BATEAN EGOERA OSOTARA ALDA DAITEKE»

Kiroldegiko kuotak itzuliko dizkiete erabiltzaileei

Kiroldegia itxita egon den denborari dagozkion hileroko kuotak urte amaiera baino lehenago itzuliko dituzte

TTIPI-TTAPA

Koronabirusaren ondorioz, martxo erdialdean kiroldegia eta Amazabal pilotalekua itxi behar izan zituen udalak. Horren ondorioz, ikastaroak aldi baterako bertan behera gelditu dira baita herriko kirol hitzordu guztiak ere. Erabiltzaileek zerbitzuaz gozatzetik izan ez dutenez, urteko kuota ordaindua duten erabiltzaileei kiroldegia itxita egon den denborari dagozkien hileroko kuotak urte amaiera baino lehenago itzultzea erabaki du Anikote udal enpresak. Ikas-

taroei dagokienez, berriz, galdutako klaseen proportzioa ekainean itzuliko da, nahiz eta hasiera batean denei kobratu.

Etxean bai, baina geldirik ez

Kalean edo kiroldegian kirola egiteko aukerarik ez denez, etxean gorputza mugitzeko hainbat proposamen eskaintzen ari dira Anikoteko arduradunak sare sozialen bidez: pilatesa, aerobika, luzaketak, gorputza indartzeko hainbat ariketa... bakoitzak bere gaitasunetara egokitu eta ez dago aitzakiarik!

Herriko komertziantek kanpaina berezia abiatu dute

TTIPI-TTAPA

Lehen, orain eta gero hemen izanen gaituzue mezua zabalduz bideoa osatu dute Kaxkabeltza elkarteko kideek. Hitzak soilik ez, azken asteetan egindako ekintzek ere argi erakutsi dute herritarrei zerbitzua ematen segitzeko gogoaz dire-

la. Orduetgia egokitu dute batzuk, telefono bidezko arreta eskaini besteek eta produktuak telefono bidez eskatu eta etxera eramateko zerbitzua ere jarri dute martxan hainbatek, denda txikiak herriaren bihotza eta bizitza direla argi erakutsiz.

Desinfekzio lanak egiten ari dira suhiltzaile boluntarioak astero

TTIPI-TTAPA

Eremu publikoak eta jendearen joan-etorria handia den guneak garbitzeko ardura hartu dute herriko suhiltzaile boluntarioek. Parkeak, kaleak, espaloiak, bankuak, dendetako sarrerak, kontenedoreak... garbitzen ari dira eta udalak

jakinarazi duenez, konfinamendu egoerakiraun bitartean astero egiten dituzte desinfekzio lanak. Neurri hauekin herritarren segurtasuna bermatu nahi dute, horrela Covid-19a zabaltzea oztopatu eta kutsatzeko arriskua txikitzen delako.



150 korrikalarik baino gehiagok parte hartu dute ekimenean.

Parte-hartzaile ugari bildu ditu Leitzako Herri Kros bereziak


TTIPI-TTAPA

Apirilaren 4an egitekoa zuten Aurrera Elkartek antolatuko Leitzako XLII. Herri Krosa. Ohiko baldintzetan izan ez bazen ere, azkenean, egin zuten. Etxean, balkoian, terrazan... korrika eginez bideoak grabatzeko deia egin zuten antolatzaileek eta erantzun

bikaina izan zuen eskaerak. 150 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten. Irudi guztiak bilduz bideoa osatu zuten gero eta sare sozialetan eta erran. eusen dago ikusgai. Etxebetarrek egindako bideo ederrak argi erakusten du leitzarrek bazutela korrikarako gogoia.

Nieve munduko txirrindulari laguntzaile onena

Txirrindularitzan espezializatua dagoen *Cycling News* aldizkari irakurleen arabera Mikel Nieve herritarra da munduko txirrindulari onena. Batez ere mendiko etapetan Mitchelton-Scott taldearen alde egindako lana aitortu nahi izan diote.



Italiako Giroko azken garaipenean.

Babes-maskarak jaso dituzte dohaintzan

Osasun etxeko eta gizarte zerbitzuetako langileek, komertziantek eta kaleak desinfektatzen dabiltzan suhiltzaile boluntarioek 3D inprimagailuekin egindako babes-maskarak jaso dituzte. FAB Nafarroa taldeak egin eta Sakanako Mankomunitatearen bidez.



Babes-maskarak jasotakoan.

'Leitzaketa 4.0' lehiaketa antolatuta dute

Astelehenetik ostiralera, 20:30ean, hamar galderako sorta argitaratuko dute euskara mankomunitatearen webgunean

TTIPI-TTAPA

Balikebaleko antolatzaileek eta Iparmank Nafarroako Iparaldeko Euskara Mankomunitateko euskara zerbitzuak itxialdiko egun hauetarako *Leitzaketa 4.0.* izeneko lehiaketa antolatu dute. www.iparmank.eus webgunearen bidez egingen dute lehiaketa. Telefono, tablet edo ordenagailuz parte har daiteke eta erraza eta arina da.

Astelehenetik ostiralera

Lehiaketa astelehenetik ostiralera egingen da (biak barne).

10 galdera jarriko dira, gehienak Leitzari buruzkoak, eta batzuk Euskal Herriari buruzkoak. Lehiaketa 20:15ean egingen da. Ordurako, parte hartu nahi duenak aplikazioan sartuta egon beharko du.

Galderei erantzuteko bi minutuko tartea izanen dute eta tarte hori bukatu ondoren ariketa gelditu egingen da. Asmatutako erantzunen arabera, eta erabilitako denboraren arabera, eguneko sailkapena sortuko dute eta webgunean bertan argitaratuko dute 20:30ean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Negu giroa udaberrian

Martxoko azken egunetan, eguraldi iragarpenek, elurra 200-300 metrotara egingen zuela iragarria zuten eta halaxe izan zen. Udaberrian sartu eta eskualdeko hainbat herri eta txoko txuritzen hasi ziren goizean goizetik. Irudi benetan politak utzi zituen elurrak herrian.

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

<p>2019-2021</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uharte Gotzaina, 1- behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	
<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>
<p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Amazabal, 23 LEITZA T. 948 61 09 74</p>	<p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>	<p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>



LeitzEKO kontsumo taldeko kidea eta baserritarra da Gotzone Sestorain leitzarra. UTZITAKOA

«Elikadura burujabetza eraikitzekeko urratsa ere bada 'Baserritik etxera'»

GOTZONE SESTORAIN LEITZEKO KONTSUMO TALDEKO KIDEA ETA BASERRITARRA

Baserritik etxera ekimenarekin Leitzaldeko baserritarren elikagaiak herritarren eskura jarri dituzte, segurtasun protokoloak bete eta baserritarren produktuak balioan jarri

E. IRAOLA LEITZA

Alarma egoeraren ondorioz zuzeneko salmentarako ate asko itxi dizkiete bertako baserritar eta ekoizleei. Leitzaldean elkarlanean aritu dira irtenbide bila eta *Baserritik etxera* ekimena izan da emaitza.

Nola eragin dizue ekoizleei egungo egoerak?

Hainbat baserritarri irekita gelditu zaizkigun salmentarako bide bakarrak denda txikiak, kontsumo taldeak edota etxeko zerbitzua dira. Bestelako kalteak ere eragin ditu egoerak axuriaren sektoreak esaterako lurra jo du, %85 jetsi da kontsumoa, jatetxeak ixtearen ondorioz.

Elkarlanean aritu zarete irtenbide bila...

Sarea lehendik ehundua genuen. Badira lau urte elkarlanean ari garela LeitzEKO kontsumo taldea, Leitzaldeko baserritar talde bat, Leitzako Udala eta herriko hainbat eragile Bertatik Bertara dinamikaren barrenean. Honi gehituko genioke orain laguntza sarearen lankidetzak.

Nola funtzionatuko du?

Kontsumo taldeak osatu duen katalogo batean bildu dute baserritarren eskaintza eta sare sozialen eta Whatsapp bidez zabaltzen da. Herritarrek 617 38 59 33 telefonora deituta egin behar dituzte eskaerak, astelehenetik asteazkenera.

Ostiral goizean baserritar bakoitzak jaso dituen eskaeren produktuak frontoira hurbildu behar ditu. Frontoian segurtasun neurriak errespetatuz eskaerak antolatzen dira eta gero laguntza sareko kideek etxez etxe banatzen dituzte. Eroslekegoera hau amaitzean eginen dio egindako eskaera guztien ordainketa LeitzEKO kontsumo taldeari. Eta baserritarrei ordainduko zaie sal-

40REN BAT ESKAERA IZAN DIRA AURRENEKO BANAKETAN

dutako elikagaien truke. Horretarako LeitzEKO eta Leitzako Udalak hitzarmen bat egin dute erosleen dirua aurreratzea hitzartuz.

Zenbat ekoizleren produktuak eskuratzeko aukera izanen da?

Hasiera eman diogu hamairu ekoizleren produktuekin. Denak sasoikoak: barazkiak, banabarrak, axuria, txekorkia, ardi esnea, gazta, tripotxak, ezti, sagardoa, e.a.

Nolako harrera izan du?

Oso ona. Lehenbizikoan 40 ren bat eskaera izan dira eta orokorrean bai baserritarrei baita herritarrei ere ekimena asko gustatu zaie. Gainera, eskaerak egin dituen jende gehiena 45 urtetik beherakoa da eta hori oso pozgarria eta itxaropentsua da guretzat.

Bertako baserritarren produktuak ikusarazteko bidea izan daiteke...

Ekimen hau herri osoari zabaltzeak balio dezake orain arteko lanari bultzada bat emateko, herritarrei gogorazteko guk hor jarraitzen dugula lanean elikagai sanoak egiten eta herritarren zerbitzura jartzen. Lankidetzak ezinbestekoa dugu gertuko elikadura sistema eraikitzeke. Gure baserritikien etorkizuna modu honetako sinergia eta sareei lotua baitago erabat eta aldi berean herritarren elikadura osasuntsurako eskubidea bermatzeko bide segurua ere badela uste dugu. Horrelako ekimenei esker guztion artean elikadura burujabetza eraikitzeke prozesuan beste urrats praktikoa bat gauzatzen arigara. **Gerora mantendu daiteke?**

Egoera berezi hau bukatzean balorazio bat egin beharko dugu eta horren arabera hurrengo urratsetan pentsatu. Bertatik Bertara dinamikaren barrenean pentsatzen ariginen ostiraletako ferian bertako ekoizleen txokoa egokitzea. Ikusita gazteek zaila dutela ostiraletan plazara hurbiltzea eta bertako produktuarekiko interesa baduela, irtenbideren bat aurkitu beharra dugu. Ea asmatzen dugun formularekin.

«Sistema publikoak gain har dezake osasun sistema honekin»

Mikel OTEIZA ETXEBERRIA KALIFORNIAN BIZI DEN ERRATZUARRA

Koronabirusa tarteko, Kalifornian ere berrogeialdian daude. Han bizi da Mikel Oteiza erratzuarra, ospitale publiko batean lan egiten du eta hango martxaren berri eman dio **TUPI-TTAPARI**

G. PIKABEA ERRATZU

Koronabirusak ez du mugarik. Noranahi ailegatzeko ez du inongo oztoporik. Euskal Herrian bertze gairik ez bada ere, ez da toki bakarra. Sorterritik urruti bizi direnek ere sumatu dute, tartean, Mikel Oteizak.

2002az geroztik Kalifornian bizi da, Los Angeles hiritik 40 bat kilometrotara, Chinon. Ospitale publiko batean egiten du lan, interprete gisa, medikuen eta pazienteen arteko harremanetan ingelesez eta gaztelaniaz lagunduz. «Zorteko» sentitzen da «lanera joan behar dudalako». Kontatu digunez, ordea, bertzelakoa da panorama orokorra: «koronabirusaren ondorioz, bat-batean langabezia ainitz igo da. Hemen ez dago ERTERik eta itxi diren denda guztiek lanik ez dagoela erran eta langileak bota dituzte». Hala ere, «orain jendeak gero eta gehiago egiten ditu Internetez erosketak eta duela egun batzuk, paketeriak biltegi batean 500 langileren bila ari ziren».

Bere lantokian, «oraingoz, koronabirusak jotako kutsatu kopurua ez da altua, nahiz eta ez diguten garbi erraten». Hori bai, segurtasun neurriak hartuak dituzte: «langile guztiak maskarekin ari gara lanean». Larrialdietako eremua «dena aldatu» dute: «kontrol neurriak ezarri dituzte, isolamendu eremuak prestatu dituzte eta ospitalera sartzerakoan, eremu batera edo bertzera bideratzen



Mikel Oteiza erratzuarra ospitale publiko batean egiten du la Kalifornian.

dituzte pazienteak. Koronabirusaren sintomak dituztenak kanpoan paratu dituzten kanpin-dendetara bideratzen dituzte eta larritasunaren araberako diete testa».

Interpretea izanda, «ospitalean goiti eta beheiti» ibiltzera ohitua dago. Orain, ordea, telefono bidez ari da lanean. «Premiazkoak ez diren hitzorduak eta ebakuntzak suspenditu dituzte eta kontsultak telefonoz egiten ari dira. Me-

«GAITZA HIRIETAN ADINA ZABALDUKO EZ DENAREN ITXAROPENA DUT»

dikuen eta pazienteen arteko dei horietan sartzen naiz ni».

Kalifornian berrogeialdia

Ikastetxeak itxita eta irakasleak eta ikasleak etxetik lanean ari dira Kalifornian, jatetxeak publikoarendako itxita daude baina aurrez aurreko edo etxeko zerbitzua eskaintzen dute, janari-dendak eta erakuntzako materiala saltzen duten dendak irekita, baita botikak ere... Baina «irekiak dauden dendetan manparak paratzen hasi dira. Pertsona bakarra joan daiteke erosketak egitera eta bi metroko distantzia mantentzeko erraten dute».

Oteizaren irudiko, «berrogeialdia ez da Euskal Herrian bezain bortitza» eta «jendea

karrikara oinez ibiltzera atezaten da». Hala ere, «gero eta neurri bortitzagoak» hartzen ari dira: «hasieran, berrogeialdiko egunak oporrak bailiran hartu zituen jendeak eta hondartzak eta Hollywood inguruko mendiko lasterbideak jendez bete ziren. Hala, hondartzak eta denak itxi dituzte».

Hiri handietan ez bizitzearen alde ona

AEBetan «koronabirus kasu gehienak hiri handietan» agertu direla dio: «New Yorken, Los Angelesen... Jende dentsitate handiko hirietan». Chinon, berriz, «ez dago pisu blokerik, denak etxeak dira, zabaleran eraikiak eta ez dago jende pilaketarik». Horrek «koronabirusa hiri horietan bezainbertze zabalduko ez denaren itxaropena» sortzen omen dio.

Gainerakoan, «denak batera eritzeak» sortzen dio kezka: «fite erremediorik ez bada harrapatzen, uste dut denok harrapatuko dugula. Baina ospitalera joatea beharrezkoa badugu bitartekoak izatea izanen da afera nagusia». Politikariak ere izan ditu hizpide: «gobernadoreek gauza bat erraten dute, CDC infekzio gaixotasunen kontrolerako zentroak bertze zerbait, presidenteak [Trump] orain gauza bat eta gero bertzea dio».

Osasun sistemarekin kritikoa

AEBko osasun sistemaz ere aritu da: «legez, larrialdietan pazienteak ez dituzte gibelera botatzen ahal, baina ospitale pribatuetara joatean zer seguro duten galdetzen dute lehen-dabiziko. Lanean ari den jendeak onurak izaten ditu eta hala, medikuaren segurua dute. Orain, ordea, hainbertze lagun kanporatu dituztenean, segururik gabe gelditu dira ainitz. Koronabirusaren sintomekin pribatuetara joaten badira, segururik ez badute, litekeena da publikoetara bideratzea. Legez, pribatuak derrigortu beharko lituzkete, sistema publikoak gainezka ez egiteko».

Melitón Films enpresa sortu dute elkarlanean

Lekarozko Estudios Melitón Estudios eta Kanariar Uhartetako Macaronesia Films enpresek osatu dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Estudios Melitón eta Kanariar Uhartetako Macaronesia Films enpresa elkartuta, Melitón Estudios sortu dute, Nafarroako ikus-entzunekoen industria sendotzeko helburuz. Enpresa horrek inbertitzaileak bilatzen

lagunduko die produktoreei eta, horrez gain, Nafarroako enpresei eskaintzen zaien zerga-pizgarria aplikatzen lagunduko die. Lan hori optimizatzeko, Melitón Films-ek Bestax Abogados eta Welaw Legal Consulting-en aholkularitza izanen du.

Etxean osasuntsu jateko Zer jan halako Baztanekoen proposamenak eskura

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak antolatutako Zer jan halako Baztan taldekoek proposatutako sukalde errezetak, bai eskuorri digitaletan, bai bideotan, herritarren eskura daude udalaren webgunean. Eskuorri eta bideotan sasoiko elikagaien

garrantzia ageriko egiten da. Eskaintzen diren errezetek sasoiko elikagaiak sukaldatzeko aukera ematen dute, toki-ko produktuekin, erraz, fite, sobera gastatu gabe. Horregatik guztiagatik, etxealdi honetarako aski proposamen erabilgarria da.



UTZITAKOA

Ultzamatik Baztanera luzatu dute eskua

Baztango oinarrizko osasun zonaldean albaitaritzako materiala jaso dute, Ultzamako Nekazari Denda enpresaren eskutik. Abeltzaintzarako zeuzkan mantal iragazgaitzak eta eskularruak eskertu dituzte, materiala urritzen hasia den honetan eta laguntza guztia ongietorria delako.



Musikak girotu eta elurrak edertu du Aniz konfinamenduan. MAITANE MARITORENA

Musika, kanta eta dantza ortziraletan eta larunbatero Anizen

MAITANE MARITORENA

Anizen ortziraletan eta larunbat ilunabarretan animazio polita izaten dugu. Jaione Elizagoienek bere Hauspolariek taldeko apariluak etxeko larrainerat atera, eta musikaz alaitzen ditu aniztarrak. Herritarrak balkoietarat eta larrainerat ateratzen dira linternekin, kantuz, dantzaz...Irrintziak ere izaten dira etxetik etxera.

Bingoa

Apirilaren 4an, berriz, bingoa izan genuen. Herri guztiak aditzeko moduan, bozgorailuetatik zenbakiak banaka-ba-

naka erran eta lerroa edo linea egitean herriko Whatsapp talderat abisua eman behar zuten egin zuenak. Leize Maritorea izan zen lerroa egin zuten lehenbizikoa, eta paper osoa edo bingoa egin zuena berriz, Irati Etulain. Leizeko egoera hau guztia pasatzean, Anizen eginen den bi pertsonendako otordua irabazi zuten, eta Iratik berriz, Jauregia esnekiak-eko produktuez osatutako zarettoa.

Esker mila Jauregia esnekiak-ekoei egoera zail honetan ere erakutsi duten eskuzabaltasunarengatik.



UTZITAKOA

Jaso duten materiala eskertu dute

Elizondoko Osasun Zentroako langileek ere herritarrek eskuz egindako maskarak, begiendako pantailak eta batak jaso dituzte egun hauetan. Lagundu duten pertsona guztiei eskerrak emateko, osasun etxearen atarian, materiala soinean, argazkia atera dute.



Zahar etxeko langileak orain bortz urte egindako elkarretaratze batean.

Zahar etxeko «gestio eredu kaxkarra» salatu dute langileek

«Gogorra eta estresantea zen egoera are gogorragoa bilakatu dela» salatu dute

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 14an alarma egoera ezarri zenetik, «zahar etxean egon den gestio ereduaz izugarri kaxkarra izan da eta, momentu honetan, egoera larri batean gaude». Horrelaxe salatu dute langileen batzordea osatzen duten ELA eta LAB sindikatuek idatzi baten bidez.

Batzordeak «langileontzat, berez gogorra eta estresantea zen lan egoera bat are gogorragoa bilakatu dela» salatu du, «zuzendaritzatik izandako jarrera bortitza eta batere enpatikoaren ondorioz».

Momentu horretan, sei ziren zahar etxean bakartuta zeuden erabiltzaileak eta bertze bat Iruñera eraman behar izan zuten. Zenbait langile, positibo eman zutelako edo sintomak zituztelako, emaitzen zain bakartuak egon dira edo daude eta ez dira lanera joaten ahal. «Egoera larri hau lehenago aipatutako gestio eredu kaxkarraren ondorio dela» adierazi nahi dute: «prebentzio neurri gehiago eskatu arren, ez zaigu kasurik egin (...)».

Sektoraren gabeziak ere gogora ekarri ditu langileen ba-

tzordeak: «zerbitzu minimoetan egiten dugu lan eguneroan; gobernuek ezartzen dituzten langile ratioak lotsagarriak direlako. Hala salatzen dugu behin eta berriaz, eta egoera berezi honetan egonik, langileoi gehiago eskatzen zaigu: prebentzio neurriak hartu behar ditugulako, aite-txi-amatxi batzuk bakarturik daudelako edo familien bisitarik ez egoteagatik pertsona hauekin denbora gehiago pasatu behar izatea dakarte. Beraien beharrak handiagoak dira eta horretarako langile kopuru bera gaude».

Enpresak zerbitzuak indartu dituela erran arren, errealitatea ez da hori eta ELA eta LABen erranetan: «langileok presiopean egin behar dugu lan, frustratuta sentitzen gara, behar bezalako arreta eta zainketak eskaintzeko zailtasun handiak ditugulako».

Langileen batzordearen arabera, «gaizki egindakoak, dagoeneko eta tamalez, gaizki eginda daude (...), baina momentu honetan kezkatzen gaituen bakarra erabiltzaileen eta lankideon osasuna da».



IDEAko zuzendari nagusiak gutun bat bidali die zahar etxeko familiakoei.

Zahar etxeko bi langilek positibo eman dute Covid-19an

TTIPI-TTAPA

«Anonimo baten bidez zabal-tzen ari diren gezur eta faltsu-keriei» erantzuteko asmoarekin idatzi bat bidali die fami-liei Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxea kudeatzen duen IDEAko zuzendari nagusi Ra-fael Sánchez-Ostizek. Zahar etxeko 104 langileetatik bik koronabirus proban positibo eman dutela onartu du eta bertze sei etxean daudela, probak egiteko esperoan. Idatziak dioenez, «Zahar Etxeko bizilagunen bizi-kalitatearen alde lanean» segitzeko boron-date irmoa dute eta «onik ateratzeko modu bakarra, denok batera arraun egitea dela» azpimarratu du. Alar-ma-egoera deitu baino bi egun lehenagotik, zahar etxeko bi-sitak eta irteerak mugatzeko protokoloa ezarria dute zahar etxean eta, horrela, «hasiera-

tik Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Ministerioaren protokoloak zorrotz aplikatu direlako, oraingoz adinekoak ez kutsatzea lortu dela» adie-razi du oharrean. Halere, ku-tsatutako bizilagun bat Iruñean ingresatua dagoela eta egon-kor dauden bertze sei egoilia-ri isolamendu irizpideak ezarri zaizkiela adierazi du. IDEAko zuzendari nagusiaren erranetan «bajarekin dauden langile guztiak ordezkatu eta langile gehiagorekin sendotu da pantilla eta behar diren atsedeen-orduak betetzen ari dira (...)». Martxoaren 9an ha-sita, goiz eta arratsaldeko txandak egiten ari den bakarra Maria Jesus Beunza zuzenda-ria da». Langileen gehiengoaren profesionaltasuna eta konpromisoa «gutxiengo ba-ten planteamendu doilorrak zikindu» duela salatu du.

Zahar etxean langile bila

Baztango Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zahar etxeak erizain laguntzailea eta zerbitzu orokorretarako langileak behar ditu, ordezkapen lanak egiteko. Erizain laguntzaileak honako egitekoak izanen lituzke: temperatura hartu, zaintza-lanak, garbiketa pertsonala...; zerbitzu orokorretakoa arropen garbiketaz eta bertzelako garbiketaz arduratuko da. Interesa dutenek, informazio gehiago eskuratu ahal izateko, 948 58 07 30 telefonora deitu beharko dute.

«Ekoizle ttikiok babes handiagoa behar genuke»

Jauregia Esnekiak enpresak «ekoizpena murriztu eta dagoenera egokitu» behar izan du

G. PIKABEA ANIZ

Oinarritzko elikagaien sektorean ari direnez, Anizko Jauregia Esnekiak enpresak lanean segitzen du konfinamendu egoeran. Ez da, ordea, betiko mar txan ari. Ostalaritzako establezimenduak eta ikastetxeak itxi izanak bete-betean eragin dio eta «ekoizpena murriztuz dagoenera egokitu» behar izan dutela kontatu dio Mikel Azkarate Tomassonek TTPI-TTAPARI. Egokitze horretan, bertzelako bideak ireki dituzte.

Zazpi langilek osatzen dute Jauregia Esnekiak enpresako lantaldea. Baina koronabirusak eragin duen egoera dela eta, «bi lagun oportetan» daudela dio Azkaratek. Beraien bezero diren ostalariak, eskualdeko hainbertze ikastetxe eta Iruñeko haur eskolak itxi ondotik, «ekoizpena jaitxi eta

egunerokoa eskaerara egokitu» behar izan dute. «Orain esne gutiago ekoizten dugu eta banaketan ere lan gutiago dugu».

Lanean ari badira ere, ekonomikoki «kolpea» izanen dela aitortu du aniztarrak. Beraien kasuan «denboraldifuerterearen» atarian etorri da guztia: «Diru-sarrera indartsuenak orain Aste Sainduan eta gero udan lortzen ditugu. Ostalaritzako eta eskoletako diru-sarrerez gain, Aste Saindukoa galdu dugu». Hala, «kasik gasnaz beteak» dituzten kamarekin egin dute topo: «Aste Saindua baino lehenxeago hasi ohi gara gasnak ateratzen baina aurtan gasna guztiekin gelditu gara».

Denda ttikiak dira beraien bertze bezeroak eta horren harira, «komunikabideetatik jendea supermerkatuetara



Jauregia Esnekiak enpresak ere koronabirusaren eragin handia sumatu du.

bideratzen ari direla» salatu nahi izan du. Azkaratek ekoizle ttikien tokia nabarmendu nahi izan du: «ekoizle ttikiak herrietan gaude eta herriak bizirik mantentzeaz gain, hemen inguruan lana sortzen dugu. Gizartearen aldetik babes handiagoa beharko genuke». Bere irudiko, egoera honek «kalte handia» egingen die ekoizle ttikiari.

Etkez etxe

Aitzinera egiteko, orain arte ireki gabeko ate bat ireki dute, etkez etxeko banaketa zerbitzuari ekin diote. «Elizondoko esne makina itxi dugu eta bezeroak deika hasi zirenean, etkez etxe banatzen hastea erabaki genuen. Astelehen arratsera arte eskaerak jaso, asteartetan prestatu eta asteazkenetan banatzen ditugu».

Baztanen hasi dute bidea eta «kontent» daude erantzun ona izan dutelako. Are gehiago, «uste baino hobea izan da». Baina Baztandik kanpo ere atea zabalik utzi dute: «Bortzirietara edo Malerrekarara joateko gutieneko eskaerak jaso beharko genituzke, baina

jendeak nahi badu informazio eske deitzen ahal du». Argi utzi nahi izan du segurtasun neurriak betez banatzen dutela.

Eskualdeko ekonomiarendako «kolpea»

Kolpea ekoizle ttikiendako eta kolpea eskualdeko ekonomiarendako. Halaxe uste du Azkaratek. «Baztanen, erraterako, turismoaren aldeko apustu handia eginga da eta hori galdu da. Konfinamendu egoera akitzen denean ikusi beharko da jendeak eskualdera etortzeko ahalmen ekonomikoa izanen duen edo ez. Ea beldurra alde batera utzi eta egoera poliki-poliki mugitzen hasten den».

Etorkizunaz galdetuta, «enpresa ttiki eta lanpostuekin zergertatuko den» irudikatzeak ezjakintasuna sortzen badiu ere, «hausnarketarako momentua» izan daitekeela dio aniztarrak. «Gauza aunitz aldatu behar dira eta horien artean, gaur egungo eredu ekonomiko eta soziala aldatu beharko da. Koronabirusaren eraginez sortu den egoera honen horretarako balio dezake».




- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Herritarren elkartasun keinua

Aniztarrek, Jauregia Esnekiak-ekoen adierazpenak leituta, babesa emateko hondarreko asteburuetan ohikoa bihurtu den hitzordua egin zuten apirilaren 1ean. Musika, kanta eta irrintziak asotsarekin ordezkatur, eltzak jo eta karrakak astindu zituzten balkoietan. Akitzeko, 'Felixia, Felixia... ai jetzi behia' kanta aditu zuten.



Arizkunen harategia, estankoa eta farmazia ingurua garbitu zituzten.

Tasubinsako langileak karrikak garbitzen ari dira

Aferak bere horretan segitzen badu aste batean edukiontzi inguruak eta hurrengoan komertzioak desinfektatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Tasubinsako langileak jendea ibiltzen den tokiak desinfektatzen ari dira, Udalak bideratuta. Lehenik herri guztietako edukiontziak egoten diren tokiak desinfektatu zituzten eta ondotik herri guztietan jendea ibiltzen den lekuak desinfektatzen aritu ziren.

Arizkunen, erraterako, harategia, estankoa eta farmazia ingurua garbitu zituzten. Aferak bere horretan segitzen badu, aste batean edukiontziak egoten diren tokiak eta ondoan jendea ibiltzen den komertzioak desinfektatzen segitzeko asmoa dutela adierazi dute.

Zerbitzu anitzetako langileak kontratatze-ko epeak aldatuta

Baztango Udalak web orrialdean aditzera eman duenez, desbrozatzeko traktore gidari aritzeko eta zerbitzu anitzetako lanak egiteko lanpostuak betetzeko deialdiaren epeak bertan behera gelditu dira. Aurrerago epe horien berri emanen duela adierazi du.

Udaberriko feria bertan behera utzi dute

Urtero bezala, aurten ere udaberriko feria ospatzekoa zuten apirilaren 17an Elizondon. Koronabirusak eragindako egoerak bere horretan dirauela kontuan hartuz, hitzordua bertan behera uztea erabaki dute Baztango Udalak eta Cederna Garalurrek.



JUAN MARI ONDIKOL

Teodora Dorremotzek 100 urte bete ditu

1920ko apirilaren 1ean Zigako Larraldean jaio zen Teodora Dorremotz Sarratea. Beraz, ehun urte bete berri ditu. Orain Elizondon bizi da, Lourdes Bidegain alabarekin eta Manolo Alvarez suhiarekin. Sei biloba eta sei birbiloba ditu. Bizilagunek, balkoira aterata, 'Zorionak zuri' abestia kantatu zioten.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

- Pinturak
- Fatxadak
- Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Berriozarren, Castejonen eta Baztanen (argazkian) gauzatu da proiektua. UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroa anitza kudeatzeko saioa Eusko Ikaskuntzak

2019an abiatu eta Baztanen, Berriozarren eta Castejonen lortutako emaitzetatik, 2020an bizikidetzan sakonduko du

TTIPI-TTAPA

Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan eta Euskarabiderek sinatutako 2019ko lankidetzako markoaren baitan, garatutako *Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikoa Nafarroan* proiektuaren emaitzen txostena aurkeztu du.

Egitasmo honek 2018an Eusko Ikaskuntzak elkarlanean bultzatutako *Gure jendea, aniztasuna eta kohesio bideak* ekimenean sakontzea bilatu du, eta bi ardatz nagusi hauek jarri du azpimarra: bizikidetzan aniztasunean eta proiektu

partekatutako baterako kultura demokratikoan. Helburu orokorra 2019an bizikidetzarako erreferentziatzeko marko baterako hurbilketa eta proiektu partekatutako baterako aukeren azterketa egitea izan da.

Eusko Ikaskuntzak prozesu ireki, parte-hartzaile eta deliberatzaile baten bidez jardundu du Nafarroan 2019an eta lurraldearen kultura, geografia eta identitate-aniztasunari erantzuten zuten hiru udalerrietan gauzatu zen proiektua: Eskualdean Baztanen, Berriozarren eta Castejonen. Hain zuzen ere, udalerririk

aukeratu ziren kultura eta nortasun arloetan aniztasun eredu desberdinak irudikatu eta immigrazioari dagokionez errealitate sozio-demografiko oso desberdinak dituztelako.

Hiru toki horietan eratu ziren Herritar Mahaiak eta, gero, Gizarte Foroak egin ziren tokiko komunitateetako eragile, teknikari eta ordezkariekin. Azken horietan, gainera, Herritar Mahaietan ateratako emaitzak kontrastatzeko aukera izan zuten.

Ondorioak

Parte-hartze guneak ospatu ondoren ondorioztatu daiteke Nafarroa anitza dela, izan ere, parte-hartzaileen artean behin eta berriz errepikatu den ideia da hau. Nafarroan gatazka eragiten duten gaien artean, euskara da alde handiz aipatuena. Euskara gatazka iturri nabarmen modura ageri da aunitzen iritziak, eta are okerrago, adostasunerako aukera gutti ikusten zaio.

Maskarak egiteko bolondresen bila dabil Ugarana Emakume Elkarteak

ARANTXA ETA IRAIA

Azken boladan elkartasun handia erakutsi da gure inguruan. Urdazubini, horren lekuko dugu Ugarana elkarteak. Duela 30 urte sortu zen emakume elkarte honek boluntarioak bilatzen ditu maskarak josteko, hasiera batean hau baitzen elkartearen helburua: josteko ikastaroak ematea. Gaur egun, mota aunitzetako ikastaroak antolatzen ditu urte guztian zehar.

Maskarak Iruñeko ospitalean lan egiten duten langileentzat bideratuko dituzte. Lagundu nahi duen edozeinek telefono honetara dei dezake: 690 12 34 93 (Anaxtaxi).

Baserritarrak bakarrik ikusten dira bideetan

Lehen autoz eta kamioiz beteak egoten ziren bideetan orain traktoreak bakarrik ikusten ditugu. Urdazubiko bizilagun aunitzek abeltzaintzan lan egiten dutenez, hauek ez dute haien eguneroko bizitza aldatu. Beraiei esker betetzen ditugu hozkailuak eta haien lana orain gehiago eskertzen dugu!

Andres Diharasarryren heriotza

Pena handiz bete zitzaigun martxoaren 22a, Andres Diharasarry zendu baitzen 73 urterekin. Xorroxin irratian herriko berriemile izan da urte anitzez, eta herriko alkate ere 1999 eta 2007 urte bitartean. Doluminak familiari.



Andres Diharasarry zena.

BERA (administrarritza)
31780 Bera

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Iruñ

DANTXARINEA
31712 Urdax

LUZAIDE
31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



Militarrak Gaienko Bentan, kanpamentua muntaturik. MARIFA ETA KORO


Gaienko Bentako belategian militarren kanpamendua

«Harriduraz» ikusi genituen apirilaren 4an kamioiak herria gurutzatzen eta muga aldea zaintzen hasiak dira nonbait

MARIFA ETA KORO

«Harriduraz» ikusi genituen apirilaren 4an militarren kamionak herria gurutzatzen, bentetako bidea hartuz. Gaienko Bentako belategian har-tu dute pausalekua, beraien kanpamentua muntatzeko.

Badakigu koronabirusari aurre egiteko mediku, erizainak, eta botikak behar direla, baina ez digute erran afera honetan zer lan ote duten egiteko militarrek. Koronabirusa ehiztatzeko teknika bereziren bat asmatu ote dute? Etxalar-



Kanpamentua muntatzen hasiak.

ko Lizarietan ere jarri omen dute gisa honetako kanpamentua eta, beraz, itxura batean, Lapurdi eta Nafarroaren arteko muga zaintzen ari dira.

TTIPI-TTAPAko harpidedunen datuak eguneratu dituzte

TTIPI-TTAPA

Herriko TTIPI-TTAPAKO harpidedunen datuak eguneratu dituzte, telefono-deien bidez. Orain artekoak aspaldikoak ziren, duela hogeibat urtekoak, beraz, ia zenduak diren herri-tarrak agertzen ziren, edo etxez aldatutakoak, edo kanpora bizitzera gan direnak, etab... Hori dena zuzendu, eta egun herrian bizi direnen datu errealak eman dira.

Bertzalde, helbidean ere aldaketa bat egin da: etxearen izenaz gain, karrika eta zenbakia agertuko dira (edo au-



Harpidetza-datuak gaurkotu dituzte.

zoaren izena). Gainera, posta elektronikoaren helbidea ere jaso dute, aldizkaria bide horretatik jasotzeko aukera izateko, adibidez.



MARIFA ETA KORO

Sartzarreraino bide zabaltzea finitu gabe

Ehitoneko bidegurutzetik Sartzarrerainokoa egiten ari ziren bide zabaltzea, guttiatik baino finitu gabe gelditu zaigu. Koronabirusak ia-ia dena paralizatu duen honetan, hori ere bertan-behera gelditu behar izan da oraingoz. Bidea zabaltzeko azkeneko zatia ageri da argazkian, finitzear.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

cristalería

BIDASOA

Dutxetako manparak · Kristalezko barandak

Ate korrederak · Sukaldeko aurrealdeak

Koadroentzako markoak · Ispiluak

Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN - T. 943 61 30 63

info@cristaleriabidasoa.com

«Familiarekin maiz solastatu ahal izateak lasaitu egiten nau»

Jone BONNEMAISON BIDART SUITZAN BIZI DEN URDAZUBIARRA

TIPI-TTAPARI kontatu dionez, «kezka» sortzen dion gaia da koronabirusa, baina aldi berean, Suitzian «nahiko babestuta» sentitzen dela aitortu du

G. PIKABEA URDAZUBI

Koronabirusa Suitzara ere ailegatua da. Halaxe baieztatu digu Jone Bonnemaison Bidart Suitzian bizi den urdazubiarrak: «Tessin kantonamenduan otsail bukaeratik kasu andana agertu dira. Italiaren mugan dago Tessin eta 250.000 bat langilek egunero Suitzara lanera etortzeko muga zeharkatzen dute, eta horietatik 66.000 Italiatik heldu dira. Horrek azaltzen du dena».

Geroztik, ordea, zabaldu egin da pandemia: «orain Suitza osoan, baina bereziki Lemán lakuaren inguruan, hainbat kasu agertzen ari dira». Ez da hortik urruti bizi urdazubiarrak. Montreux hirian egina du kabia 2013ko irailean Suitzara joan zenetik, «ez naiz mugitu, hemen ongi sentitzen bainaiz», dio. Prozesu kimikoen segurtasun ingeniari gisa egiten du lan, nahiz eta orain amatasun-bajan dagoen.

Sorterrirako bisitarik gabe

Suitzian ere karririk hutsik utzi ditu koronabirusak: «karriketari ez da nehor ikusten, eta supermerkatuetan isiltasun eta seriotasun handia dago». Bere lankide aunitzek telelana egiten omen dute, «astean bizpahiru egunez». Bere egunerokoan ere sumatu du eragina Bonnemaisonek: «amatasun-bajan nagoela aprobe txatuz, Euskal Herrirat haurrekin joan-etorriak egiteko asmoa nuen». Baina, hala-



Jone Bonnemaison Suitzian bizi da 2013az geroztik.

beharrez, sorterrirako bisitak alde batera utzi behar izan ditu eta orain, «nire bi urteko semea etxe barnean dibertitzeko aktibitateak asmatzen pasatzen dut eguna, lau hilabeteko umeaz arduratzen naizen bitartean». Hala ere, koronabirusak bere egunerokoa baino gehiago «nire seme nagusiaren bizia aldatu» duelakoan dago: «birusa agertu baino lehen, Kerman baratze handi bat duen haurtzainde-

gi batera joaten zen eta gu ahal bezainbete ateratzen ginen paseatzera».

Ez dute etxetik ateratzeko debekurik. Bai, ordea, gomendioak: «konfederazioak gomendio orokorrak eman ditu: etxetik ahal bezain guti ateratzeko, eskuak maiz garbitzeko... Ahal dutenei telelana egiteko eskatu die eta erantzukizun indibidualerako deia egin du». Tessin kantonamenduan, berriaz, «industria eta obra lekuak

ixtea erabaki dutela» azaldu digu. Gainerakoan, «jarduera ekonomikoan ahalik eta gutien eragin dezan, dagoeneko languntza ekonomikoak ematen hasi direla» adierazi digu, eta ospitaleetan egoerari «aitzin hartu» dietela dio: «materialik ez da falta eta artatzaile taldeak handitu dituzte».

Kezka

Suitzian «nahiko babestuta» sentitzen dela aitortu digu, alde batetik, «lehendabiziko kasuak agertu zirelarik, politikariek berehala hartu zituztelako neurriak» eta bertzetik, «suitzarrak, berriz ere, diziplina handia dutela erakusten ari direlako». Baina horrek ez dio kezka guztiz alde batera utzarazi: «hemengo herrialdeetan hartu diren neurri gogorrekin, kurbek birusa nekez kontrolatzen dugula erakusten digute. Pentsa nolako eragina izan dezakeen guti garatutako herrialdeetan edo herrialde pobreetan».

Sorterrira begira ere «hasieran kezka» eragiten omen zion Euskal Herrian «birusak hartu zuen hedapenaren abiadura ikusteak. Gainera, gobernuak neurri gogorrak hartu arren, sare sozialetan jendea kanpoan ibilki zela ikusten zen, aunitzek ez zutela arduraz jokatzeko». Egoera horretan, «familiarekin maiz solastatu ahal izateak lasaitzen» duela aipatu digu.

Etorkizunera begira

Argi dio etorkizun hurbilean non ikusi nahi duen burua: «memento, hemen gelditu nahiko nuke». Hala ere, «krisi honen ondorioen arabera, akaso lanez aldatu beharko dudala» kontatu digu.

Oraingoz Suitzian, baina «urte batzuen buruan» etxera itzultzeko aukera burutik pasatu zaiola ere onartu digu: «alde batetik, familiarengandik hurbil izateko itzuli nahiko nuke, baina bertzalde, hemengo herritarren balioak partekatzen ditut eta nire semeei transmititu nahiko nizkieke».

«EZIN IZAN DITUT HAURREKIN SORTERRIRA BISITAK EGIN»

«KRISIA TARTEKO, AKASO LANEZ ALDATU BEHARKO DUT»

«Pena litzateke binakako txapelketa ez bukatzea»

AIMAR OLAIZOLA GOIZUETAKO PILOTARIA

AITOR AROTZENA GOIZUETA

Talde berekoak diren Baiko eta Innpala pilota enpresek, koronabirusak sortutako salbuespen egoerak behartuta, aldi baterako euren jarduera gelditu dute eta erabakiak bi enpresetako langile guztiei – pilotari (24 eskuzkoak eta 9 palan), teknikari eta administrariei– eragin die. Horietako bat da Aimar Olaizola goizuetarra. Koronabirusaren krisiak eta frontoien itxierak binakako txapelketan murgilduta zegoenean harrapatu du, une gozoan gainera: finalerdietarako sailkatu eta lehen partida irabazi ondotik.

Nola bizi duzu etxealdi egoera: etxean kirola egiten segitzeko aukera baduzu? Eguneroko ariketa-errutina bat edo baduzu? Hasieran, normala den bezala eta denei gertatu zaigun bezala, arraro egin zait, ez gaudelako horrela ohituta, baina egun batzuk pasatu ondotik mentalizatu. Zer egoera bizi dugun kontuan hartuz, arazorik gabe, etxean ahal dudana guztia egiten dut, bizikleta, gimnasia eta pilota ere, garajea edo kanpoko paretan.

Kirol arloan, pertsonalki, behar bada unerik txarrean ailegatu zaizu egoera hau: binakako finalerdietan sartua, lehen partidua irabazia...

Alde horretatik pena pixka bat bai. Nire ustez oraintxe nengoen momenturik onenean txapelketan eta Urruti ere bai. Baina horrelako gauza bat gertatzen denean denentzat berdina da eta gero berriz hasten garenean, espero dut berriz ere puntu onean hastea... **Hau bukatzen denean, berriz ere binakakoarekin segitzeko asmoa dute edo bertan behera geldituko da txapelketa?**

Nik uste pena izango litzatekeela binakako txapelketarekin ez segitzea, hiru partidua bakarrik falta direnean. Normalean lehenbizi txapelketa hau bukatu beharko litzateke eta gero ikusiko da, buruz burukoa, udako txapelketak...

Lan arloan, enpresak ERTE bat egin dizue langile guztiei... Nola hartu duzue hori?

Pilotaren munduan lehenbiziko aldia da horrelako zerbait gertatzen dela, baina ikusita mundu guztian zer egoera dagoen, nik uste nahiko nor-



Aimar Olaizolak etxean segitzen du entrenamenduekin. UTZITAKO ARGAZKIA

mala dela. Enpresa askotan egin behar izan dute gauza bera, beraiek diru-sarrerarik ez badute normala da eta pilotarien partetik inongo arazorik gabe onartu dugu **Etxeko martxan, nola moldatzen zara, familia, semeen eskolako lanak, etab...**

Orain tokatzen ari zait sekula egin ezin izan dudana gauza, denbora gehiago umeekin pasatzea, baina oso gustura. Hori da egoera ilun honen alde

«EGUNA OSO LUZE EGIN ARREN, GURE ONERAKO DELA PENTSATU»

Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoak aipatu digunez, «oraindik ez dakigu aurtengo txapelketa jokatu den ala ez. Esperoan gaude, noski, zertan edo noiz akitzen den hau. Hasieran pentsatu genuen txapelketa murriztea, agian, finalaurdenak kendu asteburu batzuk irabazteko eta finala, beti bezala, abuzturaren lehenbiziko asteburuan jokatuko. Baina orain ezin dugu

onena. Eskolako gauzak normalean emaztearekin egiten dituzte, ni futbolekin, pilotan eta jolasean aritzen naiz beraiekin.

Ze aholku ematen diozu etxean egon behar duen jendeari?

Lasai hartzeko esango nieke, oraindik nire ustez luzerako izanen da hau, eta gainera, esaten dutenez, etxean egotea oso inportantea da, bestela sekula ez baita bukatuko arazo hau eta jende gehiago kutsatuko da. Nahiz eta etxean egon eta batzutan eguna oso luze egin, pentsatu behar dugu gure onerako dela eta badela jende asko horrela egon behar duena etxean eta gainera gaxorik, edo ospitalean. Beraz, animo denei!

Baztan-Errekako 41. Laxoa Txapelketa ere bertan behera utzi dute

TTIPI-TTAPA

Martxoko azken asteburuan hasita jokatzen zena Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren 41. edizioa bertan behera gelditu da, koronabirusak eragindako osasun krisialdia dela-eta. Hamaika taldek emana zuten izena, sei Do-

neztebekoak, Irurita eta arraiozko bina eta Oizkoak eta finala abuztuaren 1ean jokatzen zena Arraiozen. Gaur egungo egoera ikusita, ezin jakin aurten jokatzerik izanen den edo ez. Martxoaren 14an jokatu beharreko desafioa ere ez zen jokatzerik izan.

deus erran. Aukera bat izanen litzateke txapelketari kopa formatoak eman, baina erran bezala, normaltasuna itzultzen denean ikusiko dugu. Dena den, 1980tik txapelketa urtero jokatu da, ez da inoiz suspentitu. Eta helduen txapelketaz aparte, zintzilik daude gazteen txapelketa, Baztan-Erreka desafioa, irailean eta urrian jokatu behar zen kopa torneoak jokalari guztiak nahasita...».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenbiziko solairuan, erdigunean kokatua, Altzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatuta gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎608 77 79 26.

BERA. Eztegarra karrikan, Ezkerrekoa etxean pisua salgai edo errentan emateko. 72m² ditu, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela bainugela eta trasteleku ederra. Sukaldea eta logela hegoaldera begira. Pasiloan paretako armairu ederra. Igogailua, gas naturala, PVC leihoak, berogailua. ☎636 58 10 66.

DONEZTEBE. Zazpigarutuzen 102 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Ganbara eta igogailuarekin. Garaje komertziala ere bai. ☎669 08 01 61.

ELIZONDO. Apartamentua salgai. 2 logela, komuna, sukalde zabala, egongela zabala eta trasteleku. Igogailuarekin. ☎680 45 68 74.

ERRENTAN HARTZEKO

GOIZUETAN EDO INGURUAN. Bikote bat logela edo pisu bila. ☎602 53 67 29.

ETXALAR. Familia batek etxebizitza bat errentan hartu nahi du. ☎687 22 23 20.

ERRENTAN EMATEKO

BURLATA. Ikasle pisu batean logela bat errentan emateko apirillean, maiatzean eta ekainean. ☎659 82 66 09.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Iparralde karrikako 1. zenbakian 40 m²ko lokal komertziala errentan emateko. Komuna dutza eta guzti. ☎608 77 79 26.

LANA

ESKARIAK

Adinduak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Ordu-tegi malgua. ☎722 49 89 59.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegaberen erantzukizunik

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Zakurkumea oparitzeko, Collie eta Labrador arteko nahasketa. ☎647 23 71 86.

SALGAI

Urte bateko txakurra salgai. Mes-tizoa, Border Collie eta artzain txakurarena. Txertoak emanak ditu eta txiparekin. ☎616 16 48 47.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI

Fiat Scudo 1.9 diesel-a salgai. Lo egiteko prestatua. Mantenimendua egunean (fakturak). Ohe egitura eta koltxoirekin. Leihontzako aislan-teak. Engantxatzeko bola. 346.000 km. 2.200 euro. ☎628 15 70 84.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,08
- 1.koa 4,95
- 2.koa 3,81

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,19
- 1.koa 4,05
- 2.koa 3,91

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun inguruokak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 4,55/5,15
- 8-10 kilokoak: 3,50/4,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 74 €

Zerri gizona 1,490 €

Zerramak 0,860€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 27tik apirilaren 3ra bitarteko prezioak)

TAILERRAK



DENETARIK

SALEROSKETAK



Altzariak salgai. Etxe sarrerako pertxeroa eta bi oheko habi-ohea salgai. ☎637 99 39 39.



UNCETA markako **lanerako mahai profesionala** salgai, altuera aldagarria. Hagitz sendoa eta hainbat osagarri: kajonera, oinendako pausalekua, dokumentuendako bandeja, argia... 1,5 x 0,75 metro, altuera 0,7tik metro batera. ☎616 29 54 20.

Belar fardo tikiak salgai. ☎618 96 27 74.



Haritz egurrekin egindako logela salgai (bi mesanotxe eta 1,35 metroko ohea, somierrarekin, koltxoirik gabe). Hagitz egoera onean. Prezioa 300 euro. ☎685 76 44 00.

ALKAIAGA. Belar-fardoak salgai. ☎948 63 04 19.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Ikusi sail honetako iragarkiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>

BOTA BERTSOA



IRATI AGESTA LATASA
SUNBILLAKO BERTSOLARIA

Ezintasuna

Doinua: Habanera

Hainbertze egun etxean ez doinu ta ez errima pareko paper xuria dut orain etsai handina maitasunan inguruan poza, tristura edo mina gaia ere ez batador nola segitu aintzina desberdina izanen al zen bertso eskolan bagina itzalita ote dago nere bertsoetako grina baina gutxinaka doa ia ia dago egina sarritan ustea izaten da sortzen duena ezina.

Burua martxan jarrita bertze bertsoa osatzeko zenbat gauza dauden orain hemen bertan aipatzeko denbora aski baitugu ta hauengan hausnartzeko larrituta sentitu naiz datorrena onartzeko Nork egin beharko du lan honi buelta emateko? Dudak ere sortu zaizkit konponbidea ulertzeko nortzuk seinatu eta nortzuk egiz salatze eta gaitasuna ote dugun etorkizuna aldatzeko.

KONTATU KONTUAK



Dolores Goienetxek 93 urte. Martxoaren 25ean Etxalarko Dolores Goienetxe Larralde 93 urte bete zituen. Bera gogoan 1950ean Etxalarko eliz ondoan ateratako argazki hau ekarri du gogora Markos Negueruela bere ilobak. Etxalarko hiru emakumezko ageri dira, euren senarrekin. Ezkerretik hasita, Pedro lurrebaso, Dolores Goienetxe (Agerrebereko borda), Emilio Negueruela, Mañula Goienetxe (Agerrebereko borda), Inazio Elgarresta eta Fermina Mikelestorena (Apeztiko borda). Aitzinean duten neska koskorra, berriz, Koro Mendia da.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidaliguzu argazkia info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61ra.

AVIA
E.S. SANTESTEBAN



AdBlue
surtidorea jarri dugu



Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679
www.doneztebe.com



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea



SARRERAK eta BOLETOAK egiten ditugu

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

GOITI ETA BEHEITI

**Zaborra behar ez den tokian**

Leitzako Amazabal kaleko 17. etxearen eta suhiltzaileen arteko edukiontzietan hartutako irudia da hau. «Zoritxarrez, ez da lehenengo aldia», dio irakurle batek. «TTIPI-TTAPA aldizkari bat ere bazegoen. Agian hau ere irakurriko duzu... Errespetu gehixeko, mesedez!».

URTEURRENA

**Bernardo
REKALDE BARRENETXE**
1926-12-14 / 2017-04-15
III. urtemuga

Bizitorea eta bizizalea izan zinen.
Halaxe ezagutu zintugun;
halaxe izan nahi genuke.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Pilar
GARRALDA TELLETXEA**

Iruñean hil zen, 2020ko martxoaren 25ean,
81 urte zituela

Hegoak ebaki banizkio,
nirea izango zen,
ez zuen alde egingo,
baina horrela ez zen
gehiago txoria izango.



Amatxi Pilar, ez zaitugu
inoiz atzenduko!
Aunitz maite zaitugu!

SUBIZAR-GARRALDA FAMILIA

OROIGARRIA

**Fernando
ETXEPARE AGESTA**

Lesakan, 2020ko martxoaren 15ean,
71 urte zituela



Dena eman zenigulako
adiorik ez,
gero arte baizik.

ETXEKOAK

URTEURRENA

**Joseba Andoni
URDANITZ ETXEBERRIA**

2002ko apirilaren 2an
XVIII. urteurrena





Udaberriak bizia ekarriz
zure askatasun modua gogoratzen du
zure ametsak buruan izanik
zure indarra gure egiten dugu.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Mateo
MENDIBURU GORTARI**

Elizondon, 2017ko apirilaren 24an
III. urteurrena



Badira hiru urte
gure ondotik joan zinenetik.
Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu atzenduko.

Beti gure bihotzean!

EMAZTEA ETA SEMEA

URTEURRENA

**Balaxi
ANDRESENA ZUBIGARAI**

Legasan, 2019ko apirilaren 15ean
I. urteurrena



Itsasoak eraman zintuen,
orain guk zure mendietan
sentituko zaitugu.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Ignacio
IRAZOKI ETXEPETELEKU**

Bera, 1953-2020



Eskerrik asko une hauetan
babesa eta elkartzasuna
adierazi diguzuen guztiei,
baita hainbat bidetatik
eta sare sozialetatik
ailegatu zaizkigun mezuengatik ere.

FAMILIA

URTEURRENA

Balaxi ANDRESENA ZUBIGARAI
2019ko apirilaren 15ean




Usategietan eta gure bihotzean beti.

ZURE ILOBAK

OROIGARRIA


**Fermina
ARBURUA ELIZAGOYEN**

Etxalarren, 2020ko martxoaren 30ean

Ama eta amatxi maitea,
Gogorra da onartzea
Ez zaitugula gehiago ikusiko
Baina bizi garen artean
Ez zaitugu atzendumo.

ZURE FAMILIA

ESKELAK JARTZEKO edo **OROIGARRIAK EGITEKO:**
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



**Hil-ondorako kontratuarekin,
aukeratu nahi duzun agurra**

Doluan laguntza eta herentzia tramitazioa

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka

URTEBETETZEAK



Doneztebeko **Hegoa Irigoien Etxenikek** bi urte beteko ditu apirilaren 15ean. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta, TTIPI-TTAPAREN **bulegoan** edo **postaz** argazkia eta testua Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera bidalita.

Ordaintzeko:

(1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) **(2)** Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu. **(3)** Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekea. **(4)** ERRAN.EUSEN bitartez.

SORTZEAK

- **Jare Larzabal Mutuberría**, Igantzikoa, martxoaren 6an.
- **Mara Nieto Elustondo**, Aresokoa, martxoaren 28an.
- **Mattin Goñi Errandonea**, Berakoa, martxoaren 29an.
- **Malen Oskoz Apeztegia**, Sunbillakoa, apirilaren 1ean.
- **Irati Telletxea Bertiz**, Lesakakoa, apirilaren 1ean.

HERIOTZAK

- **Eleuteria Leizagoien**, Sarakoa, martxoaren 15ean, 89 urte zituela.
- **Roberto Sukunza Zabaleta**, Leitzakoa, martxoaren 28an, 91 urte zituela.
- **Angel Casi Abrego**, Lesakakoa, martxoaren 28an.
- **Daniel Darras**, Sarakoa, martxoaren 29an, 73 urte zituela.
- **Domingo Franchez Perurena**, Iruritikoa, martxoaren 29an.
- **Custodia Ruiz Alvarez**, Berakoa, martxoaren 29an, 76 urte zituela.
- **Fermin Urrutia Ezkurra**, Zubietakoa, martxoaren 29an,
- **Fermina Arburua Elizagoien**, Etxalarkoa, martxoaren 30ean, 95 urte zituela.
- **Francisco Jabier Alzuri Bergara**, Arantzakoa, martxoaren 30ean, 73 urte zituela.
- **Mari Carmen Etxeberria Itzea**, Lekarozkoa, apirilaren 1ean.
- **Josefa Oiaregi Guisu**, Aresokoa, apirilaren 2an, 86 urte zituela.
- **Alejandro Olasagasti Portu**, Lesakakoa, apirilaren 3an, 89 urte zituela.
- **Juana Araneta Lertxundi**, Gartzaingoa, apirilaren 4an, 93 urte zituela.
- **Angel Etxenike Sagartzazu**, Zugarramurdikoa, apirilaren 4an, 95 urte zituela.
- **Eliecer Barcenás Ruiz**, Berakoa, apirilaren 5ean.
- **Jose Mari Indaburu Larrondo**, Zugarramurdikoa, apirilaren 5ean, 81 urte zituela
- **Miguel Julio Tainta Pikabea**, Lesakakakoa, apirilaren 6an, 71 urte zituela.
- **Emiliana Organbide Iribarri**, Arizkungoa, apirilaren 7an.

DENBORA-PASAK


Letra-zopak

O	A	Ñ	Ñ	K	K	K	B	A	T
S	A	I	D	A	K	A	E	G	G
O	S	Ñ	H	B	O	M	R	A	Z
L	K	J	I	I	R	I	T	S	U
A	E	Ñ	A	J	O	O	S	G	T
S	X	F	I	U	M	I	O	U	R
T	O	E	I	X	A	U	P	M	I
A	R	T	S	A	B	N	I	S	K
T	R	X	Z	R	I	A	L	O	I
U	O	E	A	M	R	Z	O	R	T
Ñ	X	Z	I	A	U	E	T	M	I
B	I	U	N	N	S	R	A	E	X
T	N	L	T	K	A	R	I	N	A
F	J	O	Z	I	D	A	J	U	Ñ
N	N	H	A	G	Ñ	N	I	H	U


- ASKE
- BERTSO
- ERRAN
- ETXEZULO
- KABI
- KAMIOI
- KORONABIRUSA
- PILOTA
- TRIKITIXA
- XARMANKI
- XORROXIN
- ZAINTZA

www.euskal.info

Hieroglifikoak



Zer falta zaio oheari?



Non utzi duzu bizkotxoa?



Gorputzaren organo bat?

Jolastuz Ikasi

Sudokuak

6				9			7	2
2	5				3	9		
		4		8	5	3		
3				7		6	5	
		6			9	7		
	2	5		3	8			1
		8	9	2		1		
		2	3				4	7
5	3			4				9

		9		4			7	
3			5	1				8
8			6					3
		7		6		8		4
1								2
9		5			2	3		
5					3			7
4				9	6			1
	1			5		6		

3				6			7	
					8		4	
9				4				1
2				5			6	
1				9	6			7
	9		8					2
8				7				4
	5		3					
	4			1				5

www.sudoku.name

Erruleta

Hitza asmatu behar dugu. Horretarako, definizioa eta hitzaren amaiera emango zaigu.

...ATA. Burrunba, soinu ezatsegina.
...ATA. _____

...ETE. Husturen aurkakoa.
...ETE. _____

...ITI. Ugaztunek dute.
...ITI. _____

...UTO. Lau gurpildun ibilgailua.
...UTO. _____

...ETA. Batek galdetu eta bertzeak erantzun.
...ETA. _____

...ITE. Aitona, bizkaieraz.
...ITE. _____

...OTI. Esmatzea kostatzen zaiona.
...OTI. _____

...ATU. Zazpi bizitza omen ditu.
...ATU. _____

...ITA. Ederra.
...ITA. _____

...OTE. Haiek esaten dute.
...OTE. _____

...UTI. Hurbil ez.
...UTI. _____

...ETU. Inori kontaktzen ez zaiona; isilpean edukitzen den kontua.
...ETU. _____

...OTA. Jaurtiki.
...OTA. _____

...UTE. Baloiri ate aurrean ostiko jotzea.
...UTE. _____

...ATO. Olentzerok gehien maite duena.
...ATO. _____

...ITU. Entzun
...ITU. _____

...UTA. Jaki bitaminaduna. Egunean 5 ale jatea aholkatzen dute medikuek.
...UTA. _____

...ATI. Puska.
...ATI. _____

...ETO. Hezurdura. Mozorro gisa heriotza irudikatzen du.
...ETO. _____

...OTU. Sokarekin egiten dugu.
...OTU. _____

...ATE. Berdinketa.
...ATE. _____

...ETI. Inoizen aurkakoa.
...ETI. _____

...OTO. Bertsolariek egiten duten hanka sartzea.
...OTO. _____

...UTU. Isil.
...UTU. _____

bertsoikasgela.eus

7 desberdintasunak

Aurkitu zazpi desberdintasun irudi hauetan.



Miriam Arregi - @haya.eus

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



PLAZAN BAZAN

MARRAZTU

Uil Erlea ihesi doal! Zer ote da beldurtu duena?
Txori baten moko zabala? Tximista? Armiarma? Spray pozoitsua?
Marraztu ezazu.



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiturri)

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>




Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



ERLAUNTZA

Zenbat erle ikusten dituzu?

Horrez gain, bila itzazu elementu hauek:



Luma bat



Jostorratz bat



Botoi bat



Ehunzango bat



Bi eltxo



Bi beldar



BOTA DADOA!

Sei dado hauetatik lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eu | erran.eu

www.ttipitxartela.info

755 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Juan Miguel Maisterrena Mazondo | AMAIUR
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Cipriana Matxinenena Iribarren | BEINTZA-LABAIEN
La Rhune - 2 sarrera
Consuelo Gragirena Mutuberria | LEITZA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Jabier Bertiz Elizondo | IGANTZI
IrrisarriLand - 2 sarrera
Ainhoa Maritorea Azkarate | ANIZ
Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera
M^a Carmen Mariezkurrena Mariezk. | ERATSUN
Baga-Biga - Lote bat
M^a Asunció Amezttoy Ubiria | LESAKA
Baga-Biga - Lote bat
Jon Eskudero Irigoien | GARTZAIN
Baga-Biga - Lote bat
Oihana Mitxaus Barberena | ARESO

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Beni eta bela meditatzen
- Malkoak

TTARTTALO
www.ttarttalo.eu

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.kartingindoorirun.com



www.buatxabal.eu